

**ERREENTERIAKO UDALA ETA
MENDEKO ERAKUNDE AUTONOMOAK**

***2014KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOEI DAGOZKIEN
EGOERA ORRIAK, KONTU IKUSKAPENEN
TXOSTENAREKIN BATERA***

AURKIBIDEA

KONTU IKUSKAPENENKO TXOSTENA.....	1
1. IKUSKATUTAKO AURREKONTUKO EGOERA ORRIAK	5
1.1 Errenteriako Udala	5
1.1.1. Aurrekontuaren likidazioa.....	5
1.1.2 Aurrekontuaren emaitza	6
1.1.3 Diruzaintzako soberakina.....	6
1.2 Adinduen Egoitzaren Udal Patronatua	7
1.2.1 Aurrekontuaren likidazioa.....	7
1.2.2 Aurrekontuaren emaitza	8
1.2.3 Diruzaintzako soberakina.....	8
1.3 Errenteria Musikal Patronatua	9
1.3.1 Aurrekontuaren likidazioa.....	9
1.3.2 Aurrekontuaren emaitza	10
1.3.3 Diruzaintzako soberakina.....	10
1.4 Udal Kirol Patronatua	11
1.4.1 Aurrekontuaren likidazioa.....	11
1.4.2 Aurrekontuaren emaitza	12
1.4.3 Diruzaintzako soberakina.....	12
2. KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK.....	14
2.1 Sarrera	14
2.2 Aplikatzekoa den araudia.....	15
3. AZALPEN ATALAK: IRUZKINAK ETA GOMENDIOAK	17
3.1 Aurrekontua eta aurrekontu-aldaketak.....	17
3.2 Aurrekontua gauzatzeari buruzko ohar orokorrak	19
3.3 Zuzeneko zergak	22
3.4 Zeharkako zergak, tasak eta bestelako sarrerak	22
3.5 Jasotako transferentzia arruntak eta kapital-transferentziak	24
3.6 Inbertsio errealak besterentzea eta hirigintza-jardunen ondoriozko beste hainbat sarrera.....	26
3.7 Finantza-pasiboen eta finantza-gastuen aldakuntza.....	27

AURKIBIDEA

3.8 Langile-gastuak	31
3.9 Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak.....	33
3.10 Emandako transferentzia arruntak eta kapital-transferentziak.....	35
3.11 Inbertsio errealak.....	37
3.12 Diruzaintzako funts likidoak.....	38
3.13 Aitortutako eskubideen ondoriozko zordunak	39
3.14 Aurrekontuz kanpoko zordunak eta hartzekodunak.....	40
3.15 Erantsi beharreko kreditu-soberakinak	43
4. ERAKUNDE AUTONOMOETAKO ARLO INTERESGARRIAK	44
4.1 Adinduen Egoitzaren Udal Patronatua.....	44
4.2 Errenteria Musikal Patronatua	45
4.3 Udal Kirol Patronatua	45

**ERREENTERIAKO UDALA ETA
MENDEKO ERAKUNDE AUTONOMOAK**

***2014KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOEN EGOERA ORRIEI
BURUZKO IKUSKAPEN TXOSTENA***

2014KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOEN EGOERA ORRIEI BURUZKO IKUSKAPEN TXOSTENA

ERRENTERIAKO Udaleko Kontu-hartzaitza Nagusiari:

I. SARRERA

Gaineratzen diren ERRENTERIAKO UDALAREN eta haren mendeko eta berezko nortasun juridikoa duten “ADINDUEN EGOITZAREN UDAL PATRONATUA”, “ERRENTERIA MUSIKAL PATRONATUA” eta “UDAL KIROL PATRONATUAREN aurrekontuko egoera-orriak ikuskatu ditugu (1. atala). Egoera-orri horiek erakunde horietako bakoitzaren 2014ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren ondorioz lortu dira.

Alkateari/aipatutako entitateetako lehendakariari dagokio aurrekontu-likidazioa bihurtzearen erantzukizuna, aplikatu dakiogun finantza-informazioaren esparruarekin (2.1. atalean zehazten da) eta, bereziki, kontabilitate-printzipio eta -irizpideekin bat etorritu. Haren erantzukizunpekoa da, orobat, urteko kontuak huts materialik gabe prestatu ahal izateko beharrezkotzat jotzen duen barne-kontrola.

II. LANAREN HELBURUA ETA ERAGINA: IKUSKARIEN ERANTZUKIZUNA

Gure erantzukizuna da erantsitako urteko kontuei buruzko iritzia ematea, irudi zehatza adierazten duten kontuan hartuta, sektore publikoko kontu-ikuskapeneko arauen arabera egindako lanean oinarrituta. Arau horien arabera, kontu-ikuskapena derrigorrez egin behar da, aipatutako egoera-orrietan akats materialik ez dagoela ziurtatzeko, nahiz eta ezinezkoa den erabat ziurtatzea.

Kontu-ikuskapenak eskatzen du ebidentzia egokia eta nahikoa lortzeko prozedurak aplikatzea aurrekontu-likidazioan bildutako zenbatekoen eta informazioaren gainean. Jarraituko diren prozedurak ikuskariaren iritziaren mende daude, aurrekontuaren likidazioan akats materiala egiteko arriskuaren balorazioa barne. Arriskua baloratzean, ikuskariak kontuan hartzen du kudeatzaileak aurrekontu-likidazioa prestatzeko eta aurkezteko barne-kontrola, horrela ezaugarrien arabera egokien diren ikuskapen-prozedurak diseinatzeko eta ez entitatearen barne-kontrolari buruz duen iritzia azaltzeko. Ikuskapenean sartzen dira, halaber, kontabilitate-irizpideen egokitzapenaren ebaluazioa eta kudeatzaileak egindako kontabilitate-zenbatespenena, bai eta aurrekontuaren likidazioaren aurkezpen orokorraren ebaluazioa ere.

Gure iritzian, lortu dugun kontu-ikuskapeneko ebidentziak behar adinako oinarri egokia eskaintzen du gure kontu-ikuskapeneko aldeko iritzia salbuespenekin emateko.

III. LANAREN EMAITZAK: ALDEKO IRITZIA SALBUESPENEKIN EMATEKO OINARRIA

Txosten honen datan, ezin izan dugu jaso ondokoengandik baieztapena jasotzeko egin genuen eskaeraren erantzuna:

- Lanbide eta Kutxabank, 2014ko ekitaldian zehar bere aurrekontuaren kargura udalari egindako ordainketa egiaztatuei dagokienez.
- Udalaren hartzekodun batengandik, Egoitzaren beste batengatik eta Kirol Patronatuaren beste hartzekodun batengandik, 2014ko abenduaren 31ko zorraren osaerari eta data horretan amaitutako ekitaldian erakunde horrekin izandako eragiketa-bolumenari dagokionez.
- Udalarekin harreman profesionalak izan dituzten zirkularizatutako hiru abokaturi, haiengan eragina izan dezaketen erreklamazio, epaiketa edo auzien ondorioz sor daitezkeen guztizko obligazioei edo pasibo kontingenteei dagokienez.

Horrez gain, gure lanean zehar hainbat doikuntza jarri dira agerian, aplikatutako kontabilitateko printzipio eta irizpideen arabera erantsitako udalaren egoera-orrietan barne hartu behar liratekeenak. Jarraian adierazten dira doikuntza horien izaera eta udalean 2014ko abenduaren 31n egindako aurrekontuaren likidazioaren emaitzazko gastu orokorretarako diruzaintzako soberakinean dituzten ondorioak:

- Eurotan -

Kontzeptua	Atala	Diruzaintzako soberakina
Sarrerak -		
- "Tasak eta bestelako sarrerengatik" eskubide gutxiegi aitortuta 2014ko abenduaren 31n:		
- Lurzorua, hegalak eta zorupea okupatzeagatik tasa, 2014ko 4. hiruilekoa	3.4	265.048
- Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza arrunten ondorioz aitortutako eskubideen doikuntza:		
- Hasierako Lanbide Kualifikazioko programekin erlazionatutako eskubide gehiegi aitortzea	3.5	(86.336)
GUZTIRA		178.712

Udalaren gastuen egoera-orriko "Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak" kapituluak, honi erantsitakoak, 437.996 euroko baterako zenbatekoz aitortutako obligazioak biltzen ditu; zenbateko hori San Markos Mankomunitatearen 2014ko ekitaldiko aurrekontu-

defizita finantzazera bideratu da. Hala ere, gastu horren izaera ekonomikoa kontuan hartuta, aipatutako egoera-orriko "Transferentzia arruntak" kapituluaren kontabilizatu behar zen. Horrenbestez, erantsitako udalaren gastuen egoera-orrian, kapitulu horien saldoa aipatutako kopuruaren gaineratik eta azpitik baloratuta agertzen da, hurrenez hurren (3.9. atala).

IV. IRITZIA

Gure iritzian, "Lanaren emaitzak: aldeko iritzia salbuespenekin emateko oinarria" atalean deskribatutako gertakariak izan litzakeen ondorioengatik ez balitz, erantsitako urteko kontuek behar bezala adierazten dute, alderdi esanguratsu guztietan, ERRENTERIAKO UDALAREN eta bere mendeko diren "ADINDUEN EGOITZAREN UDAL PATRONATUA", "ERRENTERIA MUSIKAL PATRONATUA" eta "UDAL KIROL PATRONATUA" erakundeen 2014ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiaren aurrekontu-egoeren irudi zehatza, aplikatzekoa den finantza-informazioari buruzko esparru arauemailearekin eta, zehazki, bertan jasotako kontabilitate-printzipio eta -irizpideekin bat etorritik.

Betean Auditoría, SLP

José Ignacio Miguel Salvador

2015eko ekainaren 22a

**ERREENTERIAKO UDALA ETA
MENDEKO ERAKUNDE AUTONOMOAK**

2014KO AURREKONTU LIKIDAZIOEN EGOERA ORRIAK

1. IKUSKATUTAKO AURREKONTUKO EGOERA ORRIAK

1.1 ERRENTERIAKO UDALA

1.1.1 AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

-Eurotan -

SARREREN EGOERA ORRIA – 2014KO EKITALDIA								
Kapitulua	Atala	Hasierako aurrekontua	Aldaketa +/-	Behin betiko aurrekontua	Likidatutako eskubideak	Diru-bilketa	Kobratzeko dagoena	Burutzapen-egoera
1- Zuzeneko zergak	3.3	10.334.300,00	-	10.334.300,00	9.544.593,80	8.939.049,04	605.544,76	(789.706,20)
2- Zeharkako zergak	3.4	425.000,00	-	425.000,00	385.188,24	327.085,23	58.103,01	(39.811,76)
3- Tasak eta bestelako sarrerak	3.4	8.323.050,00	212.228,85	8.535.278,85	8.312.772,38	6.776.825,67	1.535.946,71	(222.506,47)
4- Transferentzia arruntak	3.5	24.699.450,00	397.635,00	25.097.085,00	25.696.386,60	24.499.748,89	1.196.637,71	599.301,60
5- Ondare-sarrerak		120.000,00	-	120.000,00	323.211,84	115.302,21	207.909,63	203.211,84
Sarrera arruntak guztira		43.901.800,00	609.863,85	44.511.663,85	44.262.152,86	40.658.011,04	3.604.141,82	(249.510,99)
7- Inbertsio errealeen besterentzea	3.6	730.000,00	-	730.000,00	300.483,03	300.483,03	-	(429.516,97)
7- Kapital-transferentziak	3.5	2.164.200,00	382.871,13	2.547.071,13	1.981.299,57	391.479,20	1.589.820,37	(565.771,56)
8- Finantza-aktiboak		90.000,00	2.525.522,78	2.615.522,78	16.395,62	9.970,62	6.425,00	(2.599.127,16)
9- Finantza-pasiboak	3.7	2.380.000,00	1.380.857,33	3.760.857,33	904.797,00	904.797,00	-	(2.856.060,33)
Kapital-sarrerak guztira		5.364.200,00	4.289.251,24	9.653.451,24	3.202.975,22	1.606.729,85	1.596.245,37	(6.450.476,02)
SARRERAK GUZTIRA		49.266.000,00	4.899.115,09	54.165.115,09	47.465.128,08	42.264.740,89	5.200.387,19	(6.699.987,01)

-Eurotan -

GASTUEN EGOERA ORRIA – 2014KO EKITALDIA								
Kapitulua	Atala	Hasierako aurrekontua	Aldaketa +/-	Behin betiko aurrekontua	Aitortutako obligazioak	Ordainketa likidoak	Ordaintz. dagoena	Burutzapen-egoera
1- Pertsonal-gastuak	3.8	14.980.500,00	712.000,00	15.692.500,00	15.142.006,58	15.141.651,59	354,99	550.493,42
2- Ondasunen erosk.	3.9	17.292.500,00	(502.427,62)	16.790.072,38	15.462.180,67	13.806.873,60	1.655.307,07	1.327.891,71
3- Finantza-gastuak	3.7	335.000,00	(83.386,72)	251.613,28	206.125,91	206.125,91	-	45.487,37
4- Transferentzia arruntak	3.10	7.607.000,00	1.010.687,70	8.617.687,70	7.084.784,96	6.539.796,03	544.988,93	1.532.902,74
Gastu arruntak guztira		40.215.000,00	1.136.873,36	41.351.873,36	37.895.098,12	35.694.447,13	2.200.650,99	3.456.775,24
6- Inbertsio errealak	3.11	5.793.000,00	3.697.191,15	9.490.191,15	4.923.008,10	3.617.195,80	1.305.812,30	4.567.183,05
7- Kapital-transferentziak	3.10	748.000,00	18.779,51	766.779,51	477.044,91	432.199,97	44.844,94	289.734,60
8- Finantza-aktiboak		90.000,00	-	90.000,00	27.192,62	21.412,62	5.780,00	62.807,38
9- Finantza-pasiboak	3.7	2.420.000,00	46.271,07	2.466.271,07	2.511.758,44	2.511.758,44	-	(45.487,37)
Kapital-gastuak guztira		9.051.000,00	3.762.241,73	12.813.241,73	7.939.004,07	6.582.566,83	1.356.437,24	4.874.237,66
GASTUAK GUZTIRA		49.266.000,00	4.899.115,09	54.165.115,09	45.834.102,19	42.277.013,96	3.557.088,23	8.331.012,90

-Eurotan -

2014AN ITXITAKO AURREKONTUEN ALDAKUNTZA					
Kontzeptua	Atala	Hasieran kobratzeko / ordaintzeko	Baliogabetzea	Kobrantsak / Ordaintetak	Kobratzeko / ordaintzeko
Zordunak	3.13	5.197.094,73	(328.089,86)	2.819.361,84	2.049.643,03
Hartzekodunak		3.041.604,79	-	3.041.604,79	-
ITXITAKO AURREKONTUAK		2.155.489,94	(328.089,86)	(222.242,95)	2.049.643,03

1.1 ERRENTERIAKO UDALA (jarraipena)

1.1.2. AURREKONTUAREN EMAITZA

-Eurotan -

Indarrean dagoen aurrekontuko aurrekontu-eragiketen emaitza:		1.631.025,89
Likidatutako eskubideak	47.465.128,08	
Aitortutako obligazioak	45.834.102,19	
	<hr/>	
Aurreko ekitaldietako aurrekontu likidatuetakoa eragiketen emaitza:		(328.089,86)
Itxitako ekitaldietako obligazio ordaindu gabeen bajak	-	
Itxitako ekitaldietako eskubide kobratu gabeen bajak	328.089,86	
	<hr/>	
DOIKUNTZA AURREKO AURREKONTUAREN EMAITZA		1.302.936,03
Aurrekontu-emaitzaren doikuntzak:		135.699,75
Diruzaintzako soberakinarekin finantzaturako obligazioak	169.341,50	
Ekitaldiari egotz dakizkiokeen finantzaketako desbiderapenak	(33.641,75)	
	<hr/>	
AURREKONTU EMAITZA DOITUA		1.438.635,78

1.1.3. DIRUZAINZAKO SOBERAKINA

-Eurotan -

1.- Diruzaintzako funts likidoak		1.874.194,49
2.- Kobratzeko dauden saldoak:		9.857.430,14
Onartutako eskubideen ondoriozko zordunak	7.250.030,22	
Aurrekontuz kanpoko zordunak	2.607.399,92	
Aplikatzeko dauden kobrantzak	-	
	<hr/>	
3.- Ordaintzeko dauden saldoak:		5.442.519,98
Aitortutako eskubideen ondoriozko hartzekodunak	3.557.088,23	
Sarreren aurrekontuko hartzekodunak	111.628,63	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	1.774.416,27	
Aplikatzeko dauden ordainketak	(613,15)	
	<hr/>	
DIRUZAINZAKO GERAKIN GORDINA (1 + 2 - 3)		6.289.104,65
Burutzeko zailak edo ezinezkoak diren eskubideak	2.114.639,09	
DIRUZAINZAKO GERAKIN LIKIDOA		4.174.465,56
Lotutako finantzaketa duten gastuei lotutako diruzaintzako soberakina	993.849,72	
DIRUZAIN. GERAKINA GASTU OROKORRETARAKO		3.180.615,84

1.2 ADINDUEN EGOITZAREN UDAL PATRONATUA

1.2.1. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

-Eurotan -

SARREREN EGOERA ORRIA – 2014KO EKITALDIA								
Kapitulua	Atala	Hasierako aurrekontua	Aldaketa +/-	Behin betiko aurrekontua	Likidatutako eskubideak	Bilketa likidoa	Kobratzeko dagoena	Burutzapen-egoera
3- Tasak eta bestelako sarrerak	3.4	1.488.500,00	135.000,00	1.623.500,00	1.688.803,53	1.579.730,91	109.072,62	65.303,53
4- Transferentzia arruntak	3.5	4.161.400,00	(65.000,00)	4.096.400,00	4.058.199,83	3.685.305,07	372.894,76	(38.200,17)
5- Ondare-sarrerak		1.000,00	-	1.000,00	742,85	742,85	-	(257,15)
Sarrera arruntak guztira		5.650.900,00	70.000,00	5.720.900,00	5.747.746,21	5.265.778,83	481.967,38	26.846,21
7- Kapital-transferentziak	3.5	30.000,00	-	30.000,00	30.000,00	30.000,00	-	-
8- Finantza-aktiboak		-	82.579,41	82.579,41	-	-	-	(82.579,41)
Kapital-sarrerak guztira		30.000,00	82.579,41	112.579,41	30.000,00	30.000,00	-	(82.579,41)
SARRERAK GUZTIRA		5.680.900,00	152.579,41	5.833.479,41	5.777.746,21	5.295.778,83	481.967,38	(55.733,20)

-Eurotan -

GASTUEN EGOERA ORRIA – 2014KO EKITALDIA								
Kapitulua	Atala	Hasierako aurrekontua	Aldaketa +/-	Behin betiko aurrekontua	Aitortutako obligazioak	Ordainketa likidoak	Ordaintzeko dagoena	Burutzapen-egoera
1- Pertsonal-gastuak	3.8	766.500,00	37.500,00	804.000,00	776.385,53	761.072,28	15.313,25	27.614,47
2- Ondasunen erosk.	3.9	4.884.200,00	100.079,41	4.984.279,41	4.899.841,00	4.124.566,13	775.274,87	84.438,41
3- Finantza-gastuak		200,00	-	200,00	-	-	-	200,00
Gastu arruntak guztira		5.650.900,00	137.579,41	5.788.479,41	5.676.226,53	4.885.638,41	790.588,12	112.252,88
6- Inbertsio errealak		30.000,00	15.000,00	45.000,00	46.249,11	24.978,61	21.270,50	(1.249,11)
Kapital-gastuak guztira		30.000,00	15.000,00	45.000,00	46.249,11	24.978,61	21.270,50	(1.249,11)
GASTUAK GUZTIRA		5.680.900,00	152.579,41	5.833.479,41	5.722.475,64	4.910.617,02	811.858,62	111.003,77

-Eurotan -

2014AN ITXITAKO AURREKONTUEN ALDAKUNTZA					
Kontzeptua	Atala	Hasieran kobratzeko / ordaintzeko	Baliogabetzea	Kobrantzak / Ordainketak	Kobratzeko / ordaintzeko
Zordunak		501.684,51	11.544,99	489.010,52	1.129,00
Hartzekodunak		850.631,66	320,88	850.310,78	-
ITXITAKO AURREKONTUAK		(348.947,15)	11.224,11	(361.300,26)	1.129,00

1.2 ADINDUEN EGOITZAREN UDAL PATRONATUA (jarraipena)

1.2.2. AURREKONTUAREN EMAITZA

-Eurotan -

Indarrean dagoen aurrekontuko aurrekontu-eragiketen emaitza:		55.270,57
Likidatutako eskubideak	5.777.746,21	
Aitortutako obligazioak	<u>5.722.475,64</u>	
Aurreko ekitaldietako aurrekontu likidatuetako eragiketen emaitza:		(11.224,11)
Itxitako ekitaldietako obligazio ordaindu gabeen bajak	320,88	
Itxitako ekitaldietako eskubide kobratu gabeen bajak	<u>11.544,99</u>	
DOIKUNTZA AURREKO AURREKONTUAREN EMAITZA		44.046,46
Aurrekontu-emaitzaren doikuntzak:		78.912,00
Diruzaintzako soberakinarekin finantzatutako obligazioak	78.912,00	
Ekitaldiari egotz dakizkiokeen finantzaketako desbiderapenak	<u>-</u>	
AURREKONTU EMAITZA DOITUA		122.958,46

1.2.3. DIRUZAINZAKO SOBERAKINA

-Eurotan -

1.- Diruzaintzako funts likidoak		724.785,57
2.- Kobratzeko dauden saldoak:		485.016,29
Onartutako eskubideen ondoriozko zordunak	481.967,38	
Aurrekontuz kanpoko zordunak	1.129,00	
Aplikatzeko dauden kobrantzak	<u>1.919,91</u>	
3.- Ordaintzeko dauden saldoak:		1.075.326,97
Aitortutako eskubideen ondoriozko hartzekodunak	811.858,62	
Sarrerren aurrekontuko hartzekodunak	-	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	263.468,35	
Aplikatzeko dauden ordainketak	<u>-</u>	
DIRUZAINZAKO GERAKIN GORDINA (1 + 2 - 3)		134.474,89
Burutzeko zailak edo ezinezkoak diren eskubideak	-	
DIRUZAINZAKO GERAKIN LIKIDOA		134.474,89
Lotutako finantzaketa duten gastuei lotutako diruzaintzako soberakina	-	
DIRUZAIN. GERAKINA GASTU OROKORRETARAKO		134.474,89

1.3 ERRENTERIA MUSIKAL PATRONATUA

1.3.1. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

-Eurotan -

SARREREN EGOERA ORRIA – 2014KO EKITALDIA								
Kapitulua	Atala	Hasierako aurrekontua	Aldaketa +/- +/-	Behin betiko aurrekontua	Likidatutako eskubideak	Diru-bilketa likidoak	Kobratzeko dagoena	Gauzatzearen egoera-orria
3- Tasak eta bestelako sarrerak	3.4	250.000,00	-	250.000,00	307.736,64	304.658,64	3.078,00	57.736,64
4- Transferentzia arruntak	3.5	1.753.400,00	-	1.753.400,00	1.795.450,27	1.526.079,05	269.371,22	42.050,27
Sarrera arruntak guztira		2.003.400,00	-	2.003.400,00	2.103.186,91	1.830.737,69	272.449,22	99.786,91
7- Kapital-transferentziak	3.5	4.000,00	-	4.000,00	4.000,00	-	4.000,00	-
Kapital-sarrerak guztira		4.000,00	-	4.000,00	4.000,00	-	4.000,00	-
SARRERAK GUZTIRA		2.007.400,00	-	2.007.400,00	2.107.186,91	1.830.737,69	276.449,22	99.786,91

-Eurotan -

GASTUEN EGOERA ORRIA – 2014KO EKITALDIA								
Kapitulua	Atala	Hasierako aurrekontua	Aldaketa +/- +/-	Behin betiko aurrekontua	Aitortutako obligazioak	Ordainketak likidoak	Ordaintzeko dagoena	Gauzatzearen egoera-orria
1- Pertsonal-gastuak	3.8	1.691.769,00	89.000,00	1.780.769,00	1.778.493,48	1.733.069,62	45.423,86	2.275,52
2- Ondasunen erosk.	3.9	252.571,00	(99.027,60)	153.543,40	140.768,56	129.878,40	10.890,16	12.774,84
4- Transferentzia arruntak		59.060,00	-	59.060,00	59.060,00	52.060,00	7.000,00	-
Gastu arruntak guztira		2.003.400,00	(10.027,60)	1.993.372,40	1.978.322,04	1.915.008,02	63.314,02	15.050,36
6- Inbertsio errealak		4.000,00	10.027,60	14.027,60	13.728,23	12.367,90	1.360,33	299,37
Kapital-gastuak guztira		4.000,00	10.027,60	14.027,60	13.728,23	12.367,90	1.360,33	299,37
GASTUAK GUZTIRA		2.007.400,00	-	2.007.400,00	1.992.050,27	1.927.375,92	64.674,35	15.349,73

-Eurotan -

2014AN ITXITAKO AURREKONTUEN ALDAKUNTZA					
Kontzeptua	Atala	Kobratzeko / ordaintzeko Hasiera	Baliogabetzea	Kobrantzak / Ordainketak	Kobratzeko / ordaintzeko
Zordunak		229.787,61	-	229.015,61	772,00
Hartzekodunak		18.730,78	-	18.730,78	-
ITXITAKO AURREKONTUAK		211.056,83	-	210.284,83	772,00

1.3 ERRENTERIA MUSIKAL PATRONATUA (jarraipena)

1.3.2. AURREKONTUAREN EMAITZA

-Eurotan -

Indarrean dagoen aurrekontuko aurrekontu-eragiketen emaitza:		115.136,64
Likidatutako eskubideak	2.107.186,91	
Aitortutako obligazioak	1.992.050,27	
Aurreko ekitaldietako aurrekontu likidatueto eragiketen emaitza:		-
Ixitako ekitaldietako obligazio ordaindu gabeen bajak	-	
Ixitako ekitaldietako eskubide kobratu gabeen bajak	-	
	<hr/>	
DOIKUNTZA AURREKO AURREKONTUAREN EMAITZA		115.136,64
Aurrekontu-emaitzaren doikuntzak:		-
Diruzaintzako soberakinarekin finantzatutako obligazioak	-	
Ekitaldiari egotz dakizkioken finantzaketako desbiderapenak	-	
	<hr/>	
AURREKONTU EMAITZA DOITUA		115.136,64

1.3.3. DIRUZAINZAKO SOBERAKINA

-Eurotan -

1.- Diruzaintzako funts likidoak		399.777,08
2.- Kobratzeko dauden saldoak:		277.221,22
Onartutako eskubideen ondoriozko zordunak	277.221,22	
Aurrekontuz kanpoko zordunak	-	
Aplikatzeko dauden kobrantzak	-	
	<hr/>	
3.- Ordaintzeko dauden saldoak:		150.373,85
Aitortutako eskubideen ondoriozko hartzekodunak	64.674,35	
Sarreren aurrekontuko hartzekodunak	-	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	85.699,50	
Aplikatzeko dauden ordainketak	-	
	<hr/>	
DIRUZAINZAKO GERAKIN GORDINA (1 + 2 – 3)		526.624,45
Burutzeko zailak edo ezinezkoak diren eskubideak	-	
DIRUZAINZAKO GERAKIN LIKIDOA		526.624,45
Lotutako finantzaketa duten gastuei lotutako diruzaintzako soberakina	-	
DIRUZAIN. GERAKINA GASTU OROKORRETARAKO		526.624,45

1.4 UDAL KIROL PATRONATUA

1.4.1 AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

-Eurotan -

SARREREN EGOERA ORRIA - 2014KO EKITALDIA								
Kapitulua	Atala	Hasierako aurrekontua	Aldaketa +/- +/-	Behin betiko aurrekontua	Likidatutako eskubideak	Diru-bilketa likidoak	Kobratzeko dagoena	Gauzatzearen egoera-orria
3- Tasak eta bestelako sarrerak	3.4	201.000,00	-	201.000,00	227.915,62	194.589,95	33.325,67	26.915,62
4- Transferentzia arruntak	3.5	1.021.340,00	-	1.021.340,00	1.026.873,49	1.019.575,27	7.298,22	5.533,49
Sarrera arruntak guztira		1.222.340,00	-	1.222.340,00	1.254.789,11	1.214.165,22	40.623,89	32.449,11
7- Kapital-transferentziak	3.5	410.000,00	-	410.000,00	409.963,75	398.111,60	11.852,15	(36,25)
8- Finantza-aktiboak		-	9.000,00	9.000,00	-	-	-	(9.000,00)
Kapital-sarrerak guztira		410.000,00	9.000,00	419.000,00	409.963,75	398.111,60	11.852,15	(9.036,25)
SARRERAK GUZTIRA		1.632.340,00	9.000,00	1.641.340,00	1.664.752,86	1.612.276,82	52.476,04	23.412,86

-Eurotan -

GASTUEN EGOERA ORRIA - 2014KO EKITALDIA								
Kapitulua	Atala	Hasierako aurrekontua	Aldaketa +/- +/-	Behin betiko aurrekontua	Aitortutako obligazioak	Ordainketak likidoak	Ordaintzeko dagoena	Gauzatzearen egoera-orria
1- Pertsonal-gastuak	3.8	174.500,00	-	174.500,00	169.521,29	169.521,29	-	4.978,71
2- Ondasunen erosk.	3.9	936.500,00	9.000,00	945.500,00	937.026,40	902.918,22	34.108,18	8.473,60
4- Transferentzia arruntak		111.340,00	-	111.340,00	111.340,00	99.890,00	11.450,00	-
Gastu arruntak guztira		1.222.340,00	9.000,00	1.231.340,00	1.217.887,69	1.172.329,51	45.558,18	13.452,31
6- Inbertsio errealak		410.000,00	-	410.000,00	409.963,65	310.807,20	99.156,45	36,35
Kapital-gastuak guztira		410.000,00	-	410.000,00	409.963,65	310.807,20	99.156,45	36,35
GASTUAK GUZTIRA		1.632.340,00	9.000,00	1.641.340,00	1.627.851,34	1.483.136,71	144.714,63	13.488,66

-Eurotan -

2014AN ITXITAKO AURREKONTUEN ALDAKUNTZA					
Kontzeptua	Atala	Kobratzeko / ordaintzeko Hasiera	Baliogabetzea	Kobrantzak / Ordainketak	Kobratzeko / ordaintzeko
Zordunak		51.774,78	-	51.774,78	-
Hartzekodunak		57.439,06	(0,40)	57.439,46	-
ITXITAKO AURREKONTUAK		(5.664,28)	0,40	(5.664,68)	-

1.4. KIROLETAKO UDAL PATRONATUA (jarraipena)

1.4.2. AURREKONTUAREN EMAITZA

-Eurotan -

Indarrean dagoen aurrekontuko aurrekontu-eragiketen emaitza:		(*) 36.903,00
Likidatutako eskubideak	1.664.752,86	
Aitortutako obligazioak	1.627.851,34	
	<hr/>	
Aurreko ekitaldietako aurrekontu likidatuetako eragiketen emaitza:		(0,40)
Itxitako ekitaldietako obligazio ordaindu gabeen bajak	(0,40)	
Itxitako ekitaldietako eskubide kobratu gabeen bajak	-	
	<hr/>	
DOIKUNTZA AURREKO AURREKONTUAREN EMAITZA		36.902,60
Aurrekontu-emaitzaren doikuntzak:		9.000,00
Diruzaintzako soberakinarekin finantzatutako obligazioak	-	
Ekitaldiari egotz dakizkiokeen finantzaketako desbiderapenak	9.000,00	
	<hr/>	
AURREKONTU EMAITZA DOITUA		45.902,60

OHARRA: Akats aritmetiko bat dago indarrean dagoen aurrekontuaren aurrekontuko eragiketen Emaitzan islatutako zenbatekoan. Zehazki, 1,48 €-koa da akatsa, hortaz, zenbateko zuzenak 36.901,52 € izan beharko luke eta Aurrekontuaren Emaitza Doitua, 45.901,12 eurokoa.

II.4.3. DIRUZAINZAKO SOBERAKINA

-Eurotan -

1.- Diruzaintzako funts likidoak		154.777,03
2.- Kobratzeko dauden saldoak:		52.476,04
Onartutako eskubideen ondoriozko zordunak	52.476,04	
Aurrekontuz kanpoko zordunak	-	
Aplikatzeko dauden kobrantzak	-	
	<hr/>	
3.- Ordaintzeko dauden saldoak:		160.502,96
Aitortutako eskubideen ondoriozko hartzekodunak	144.714,63	
Sarreraren aurrekontuko hartzekodunak	-	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	15.788,33	
Aplikatzeko dauden ordainketak	-	
	<hr/>	
DIRUZAINZAKO GERAKIN GORDINA (1 + 2 - 3)		46.750,11
Burutzeko zailak edo ezinezkoak diren eskubideak	-	
DIRUZAINZAKO GERAKIN LIKIDOA		46.750,11
Lotutako finantzaketa duten gastuei lotutako diruzaintzako soberakina	-	
DIRUZAIN. GERAKINA GASTU OROKORRETARAKO		46.750,11

**ERRENTERIAKO UDALA ETA
MENDEKO ERAKUNDE AUTONOMOAK**

***2014KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOEI
DAGOZKIEN EGOERA ORRIEN AZALPEN ATALAK ETA
BESTELAKO OHARRAK***

2. AURKEZPEN OINARRIAK

2.1 SARRERA

Errenteria Donostialdean dago, Gipuzkoako Lurralde Historikoan, eta zuzenbidezko 39.230 biztanle dauzka 2014ko urtarrilaren 1eko datuen arabera.

Aurrekontu-ekitaldia amaitzean, toki-erakundeek Kontu Orokorra osatu behar dituzte eta bertan adierazten da egindako kudeaketa ekonomikoa, finantzarioa, ondasuneko eta aurrekontukoa. Udalerrri honi dagokionez, 2014ko ekitaldiari dagokion ERRENTERIAKO UDALAREN kontu orokorra *Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 62. artikulua* Udalarri berari eta berezko nortasun juridikoa duten eta bere mendekoak diren erakunde autonomoei eskatzen dizkien aurrekontuko eta ondareko kontuek osatzen dute:

- Adinduen Egoitzaren Udal Patronatua (Zaharren Egoitza)
- Errenteria Musikal Patronatua (Errenteria Musikal).
- Udal Kirol Patronatua (Kirolak)

Bai eta txosten honen xede ez den “Errenteria Garatuz Udal Sozietatea ere.

Erakunde horiei aplikatzekoak zaizkien finantza- eta aurrekontu-informazioaren esparru arauemailea aipatutako foru-arauan bertan eta Foru Dekretu honetan ezarritakoa da: 100/2004 Foru Dekretua, abenduaren 21ekoa, Gipuzkoako toki-entitateen aurrekontu-egitura eta Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra onartzen dituen.

Aipatutako Kontu Orokorren barruan dauden aurrekontuko egoera-orriak soilik daude txosten honen mende (1. Atala), eta *Ikuskaritza Txostenean* deskribatzen den iritsierarekin. Edozein kasutan lanaren irispideak ez du bere baitan hartu gastuaren eraginkortasunari eta efizientziari buruzko analisia, ezta Udalaren kudeaketa-prozedurei buruzkoa ere.

Udalak ez du aurkezten bere kontu orokorra osatzen duten erakundeek formulatutako aurrekontu-likidazioen emaitzako informazio bateraturik.

Txosten honen datan, adierazitako udalbatzak ez du oraindik onartu Kontu Orokorra.

2.2 APLIKATZEKO DEN ARAUDIA

2014ko ekitaldian, Gipuzkoako toki-mailako sektore publikoa araupetzen duen araudiak zuzendu ditu udala eta bere erakundea:

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- 781/1986 Errege Dekretu Legegilea, apirilaren 18koa, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen Testu Bategina onartzen duena.
- Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/88 Legearen lehen, zortzigarren eta hemeretzigarren xedapen gehigarriak.
- 11/1989 Foru Araua, uztailaren 5koa, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzkoa.
- 1098/2001 Legea, urriaren 12koa, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzkoa.
- 21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoa.
- 2/2004 Legegintzako Errege Dekretua, martxoaren 5koa, Toki Ogasunei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.
- 100/2004 Foru Dekretua, abenduaren 21koa, Gipuzkoako toki-entitateen aurrekontu-egitura eta Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra onartzen dituena.
- 3/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 26koa, Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Lege Orokorren osagarria den abenduaren 13ko 5/2001 Lege Organikoa aldatzen duena.
- 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena.
- 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.
- 1463/2007 Errege Dekretua, azaroaren 2koa, Aurrekontu Egonkortasunari buruzko abenduaren 12ko 18/2001 Legea garatzen duena, toki-erakundeei aplikatzeari dagokionez.
- 141/2007 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, toki-erakundeen Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorreko agindu jakin batzuen aldaketa eta kontabilitate-jarraibidea onartzen dituena.
- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki-erakundeen aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren arloetan finantza-tutoretzako eskuduntza garatzen duena.
- 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, Toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.
- 2013ko otsailaren 19ko akordioa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Instrukzioa onartzeko (2014. urteko aurrekontuak lantzeko, onartzeko eta gauzatzeko Gipuzkoako toki-erakundeei jarraitu beharko duten instrukzioa).
- 13/2014 Foru Araua, azaroaren 17koa, Toki-administrazioaren arrazionalizazio eta

iraunkortasun neurriak Gipuzkoa Lurralde Historikoan aplikatzeko foru-berezitasunari buruzkoa.

Aurreko paragrafoen arabera, *honako hau gomendatzen dugu*:

⇒ Udalaren eta mendeko erakunde autonomoen egoera-orri bateratuak egitea, udal-jarduera guztiaren kontabilitate-informazioa lortu ahal izateko. Kontabilitateko egoera-orriak bateratzeko prozesuan ezabatu egin behar dira bateratutako erakundeen arteko saldo eta transakzio garrantzitsuak

3. AZALPEN ATALAK: IRUZKINAK ETA GOMENDIOAK

Ondoren, kudeaketa-arlo esanguratsuenetariko bakoitzerako, ikuskatutako egoera-orriak interpretatzeko eta ulertzeko beharrezkoa eta nahikoa dela iritzi diogun informazioa garatuko dugu. Halaber, hala badagokio bederen, gure lanean hauteman ditugun gertaeren inguruko informazioa zabalduko dugu, emandako iritziaren salbuespenei buruzko paragrafoetan jasota geratu direnei buruzkoa hain zuzen ere (ikus *Kontu-ikuskapeneko txostena*). Azkenik, atal horietan antolamendu-sistemekin, prozedurekin, kontabilitatearekin eta udalaren barne-kontrolarekin lotzen diren urritasunak ere hartu dira barnean. Edonola ere, urritasun horiek ez dute Entitatearen jarduera ekonomikoa eta finantzarioa zuzentzen, eta ez dute kudeaketa hobetzeko aditzera ematen diren kontabilitate-printzipioetan eta administrazio-kontratazioko printzipioetan eragin garrantzitsurik.

3.1. AURREKONTUA ETA AURREKONTU ALDAKETAK

Errenteriako Udalbatzak, 2014ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, hasierako onarpena eman zien 2014rako aurrekontuari eta aurrekontu hori gauzatzeko arauari. Jendaurrean jakinarazteko arauzko epea igaro ondoren, eta aurkeztutako erreklamazioak abatzi ondoren, ordenantza behin betiko onartuta geratu zen, onarpena 2014ko martxoaren 10eko GAOn argitaratzearekin batera. Udalaren sarrerren zein gastuen hasierako aurrekontua 49.266.000 euro zen. Entitate horren eta mendeko dituen “Adinduen Egoitzaren Udal Patronatua”, “Errenteria Musikal Patronatua” eta “Udal Kirol Patronatua” erakundeen nahiz “Errenteria Garatuz” sozietate publikoaren artean finkatutako hasierako aurrekontua 58.586.640 eurokoa zen sarrerei eta gastuei dagokienez.

Aurrekontua ez da programa-mailan garatzen eta, horrenbestez, ezinezkoa da programen helburuak, ekintzak eta adierazleak deskribatzea.

Ekitaldian, Udalak zenbait aurrekontu-aldaketa egin ditu. Hona hemen Udalaren aurrekontuan onartutako aldaketen gehikuntzen eta murrizketen xehetasuna kapituluka:

Kapitulua	Kredituak aldatzeko erregimena					Aldaketak guztira
	Kredituak eranstea	Kredituak gaitzea	Kreditu gehigarriak	Transferentziak		
				+	-	
Sarrerren egoera-orria-						
3- Tasak eta bestelako sarrerak	-	212.228,85	-			212.228,85
4. Transferentzia arruntak	-	397.635,00	-			397.635,00
7. Kapital-transferentziak	61.178,38	321.692,75	-			382.871,13
8. Kapital-transferentziak	826.362,74	-	1.699.160,04			2.525.522,78
9. Finantza-pasiboak	1.380.857,33	-	-			1.380.857,33
Sarrerren aldaketak guztira	2.268.398,45	931.556,60	1.699.160,04			4.899.115,09
Gastuen egoera-orria						
1. Langile-gastuak	-	-	-	800.000,00	(88.000,00)	712.000,00
2. Ondasunak eta Zerbitzuak	228.577,05	14.343,85	326.610,72	260.125,14	(1.332.084,38)	(502.427,62)
3. Finantza-gastuak	-	-	-	-	(83.386,72)	(83.386,72)
4. Transferentzia arruntak	236.984,70	395.520,00	99.431,00	318.752,00	(40.000,00)	1.010.687,70
6. Inbertsio errealak	1.799.057,19	521.692,75	1.226.847,25	149.593,96	-	3.697.191,15
7. Kapital-transferentziak	3.779,51	-	-	15.000,00	-	18.779,51
9. Finantza-pasiboak	-	-	46.271,07	-	-	46.271,07
Gastuetako aldaketak guztira	2.268.398,45	931.556,60	1.699.160,04	1.543.471,10	(1.543.471,10)	4.899.115,09

2014ko ekitaldian, Udalak kredituak aldatzeko guztira 15 espediente onartu ditu. Horietatik bat gaineratzekoa izan da, lau kreditu gaineratzekoa, zazpi kreditu-gaikuntzako eta gainerako hirurak kreditu transferentziei dagozkienak izan dira.

Aurreko paragrafoen arabera, *honako hau gomendatzen dugu:*

⇒ *Udalaren jardueraren eraginkortasun eta ekonomiari loturik egindako jarduerak baloratzea ahalbidetuko duen teknikaren bat erabiliz egitea aurrekontuak. Horretarako, helburuak eta adierazleak ezarri beharko dira programa funtzional bakoitzerako.*

3.2. AURREKONTUA GAUZATZEARI BURUZKO OHAR OROKORRAK

Aurrekontu-likidazioaren ondoriozko emaitzak

Udalaren, adinduen egoitzaren, musika-patronatuaren eta kirol-patronatuaren 2014ko ekitaldiari dagokion aurrekontuaren likidazioa alkatetzak 2015eko martxoaren 30ean emandako dekretuen bidez onartu da.

“Indarrean dagoen aurrekontuko aurrekontu-eragiketen emaitza” aurrekontuan sartutako zenbatekoen (aurreko taulan adierazitako aldaketak aintzat hartu ondoren) eta azkenik onartutako eskubide eta obligazioen arteko aldeen batura gisa lortzen da, honako xehetasun honen arabera:

		-Eurotan -
Sarrerren egoera-orria:		(4.174.464,23)
Sarrera arrunt txikiagoak	(249.510,99)	
Kapital-sarrera txikiagoak	(3.924.953,24)	
	<hr/>	
Gastuen egoera-orria:		8.331.012,90
Gastu arrunt txikiagoak	3.456.775,24	
Kapital-gastu txikiagoak	4.874.237,66	
	<hr/>	
2014an aurrekontu-aldaketak finantzatu dituen 13-12-31ko diruzaintzako soberakina		2.525.522,78
Indarrean dagoen aurrekontuko eragiketen emaitza:		1.631.025,89

Gastuen aurrekontuaren egikaritze-maila % 84,6koa da. Ehuneko hori, batik bat, gastu arrunteko kapituluetan eta "Finantza-pasiboak" kapituluaren lortu den egikaritze-maila altuari esker lortu da, izan ere kapituluok batera kalkulatu, egikaritze-maila % 92,2koa da.

Bestalde, "Inbertsio errealak" kapituluaren egikaritzea % 51,9koa izan da. Ehuneko horrek, era berean, aurreko ekitaldietatik erantsitako kredituen multzoan (% 84,4) eta 2014ko ekitaldiko ordainketa-kredituetan (% 44,3) aitortutako obligazioen eragina hartzen du barnean.

Gauzatze-maila txiki hori da 2015eko ekitaldiko aurrekontuari kapitulu honetako 3.956.137 euroko kreditu-soberakinak eransteko arrazoi nagusia, erantsitako kreditu-soberakin guztien % 77 hain zuzen ere.

Aurrekontu-egonkortasuna

2012ko maiatzaren 1ean jarri zen indarrean 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa. Legean, hiru helburu hauek ezartzen dira: administrazio publiko guztien finantza-iraunkortasuna bermatzea; Espainiako ekonomiaren egonkortasunarekiko konfiantza indartzea; eta aurrekontu-egonkortasunaren alorrean Europar Batasunarekiko konpromisoa sendotzea.

Legearen printzipio orokorren barruan, aurreko legeriaren lau printzipioei eusten zaie – *aurrekontu-egonkortasuna, urteaniztasuna, gardentasuna, eta eraginkortasuna eta eragimena baliabide publikoak esleitzean*–, eta hiru printzipio berri sartzen dira: *finantza-iraunkortasun, erantzukizun eta leialtasun instituzionala*.

Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko printzipioen aplikazio eraginkorrak, beraz, tokiko erakundeetan honako baldintza hauek betetzea dakar:

- Aurrekontu-egonkortasuna: Erakunde horiek aurrekontu-orekari edo -superabitari eutsi beharko diote haien aurrekontuak prestatu, onartu eta gauzatzean (finantza-ahalmenaren edo -beharraren arabera neurtzen da, Kontu Nazionalen eta Eskualdekoen Europako Sistemari jasotako definizioari jarraituz).
- Gastuaren araua: gastu konputagarriaren aldakuntzak ezin izango du gaintu epe ertainerako Espainiako ekonomiaren barne-produktu gordinaren (BPG) erreferentziako hazkunde-tasa. 2014ko ekitaldirako % 1,5ekoa da aipatutako tasa. Modu osagarrian, aurreikusitakoak baino sarrera altuagoak lortzen badira, zor publikoa murriztera bideratuko dira osorik.
- Zor-muga: administrazio publikoen multzoaren zor publikoaren bolumenak ezin izango du BPGaren % 60 gaintu guztira. Ildo horretatik, *Gipuzkoako toki-erakundeek aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren arloetan finantza-tutoretzako eskuduntza garatzeko jarraibidearen bitartez*, 2013an likidatutako diru-sarrera arrunten % 95eko zor-muga ezartzen da entitate horietan 2014ko abenduaren 31rako.

Azkenik, aurrekontu-egonkortasunaren, zor publikoaren eta gastuaren arauaren helburuak betetzeari buruzko txostenak egiteko beharra jasotzen da. Helburuak betetzeari buruzko txostena egingo da, bai aurrekontu-proiektuei, bai hasierako aurrekontuei, bai horien gauzatzeari dagokienez.

Helburu hauetako edozein ez betetzeak urtebeteko epean desbideratzea zuzentzea ahalbidetuko duen plan ekonomiko-finantzarioa aurkeztu beharra eskatuko du.

Bestalde, 2013ko ekitaldian indarrean jarri zen *1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.*

Bertan, beste gauza batzuen artean, honakoa aipatzen da: aurrekontu-egonkortasunaren helburua ez betetzeko arrazoia, diruzaintzako soberakina erabili izana baldin bada, plan ekonomiko eta finantzarioaren ordezkari erakundearen osoko bilkurari Kontu-hartzailetzaren txostena aurkeztuko zaio egoera hori adieraziz, eta bertan, erakundearen iraunkortasun finantzarioa analizatu eta ebaluatuko da.

Era berean, kredituak gaineratzeko gastu orokorretarako diruzaintza-soberakina erabiltzea ahalbidetzen du. Gainera, aribideko ekitaldirako finkatutako zorraren helburua beteko duten erakundeek diruzaintza-soberakina kreditu osagarriak finantzatzeko gastu orokorretarako erabili ahal izango dute.

Udalaren eta bere erakunde autonomiadunen 2014ko ekitaldiko hasierako aurrekontuak, aldatutakoak eta aurrekontuaren likidazioa bateratetik ondorioztatzen den finantzatzeko ahalmena/premia honakoa da:

-Eurotan -

Kontzeptua	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Eskubideak/Obligazioak
Sarreraren egoera-orriko 1.tik 7.era bitarteko kapituluak	51.815.500,00	52.878.234,98	53.481.321,22
Gastuen egoera-orriko 1.etik 7.era bitarteko kapituluak	51.748.500,00	56.747.923,43	48.333.229,35
Finantzaketarako ahalmena (beharra)	67.000,00	(3.869.688,45)	5.148.091,87
1.etik 7.era bitarteko kapituluetan gastu handiagoak finantzatzeko erabilitako diruzaintzako soberakina eta berak aitortu eta finantzatzeko obligazioak	-	2.617.102,19	1.271.404,73
Diruzaintzako soberakina erabili ondoren finantzatzeko ahalmena (beharra)	67.000,00	(1.252.586,26)	6.419.496,60

Kredituak aldatzeko finantzaketan erabilitako diruzaintzako soberakina kontuan hartu eta gero, urratu egiten da egonkortasun-printzipioa Behin Betiko Aurrekontuaren fasean, izan ere, 2013an kredituak gaineratzeko maileguengatik sarrerak erabili dira finantzatzeko iturri gisa.

Bestalde, 2014ko likidazioan aurkeztutako aurrekontu-egonkortasuneko helburuen betetzeari buruzko txostenean udalarekin erlazionatutako datuak bakarrik jasotzen dira, baina indarrean dagoen aipatutako araudiaren arabera, helburu horiek modu bateratuan egiaztatu behar dira.

3.3. ZUZENENKO ZERGA

Hona hemen Udalaren sarrerren egoera-orriko kapitulu horri dagozkion eskubideen banakatzea:

-Eurotan -

Zerga	Eskubide likidatuak	Diru-bilketa likidoa	Kobratzeko dagoena
Ondasun higiezinak	6.502.776,51	6.229.051,47	273.725,04
Trakzio mekanikoko ibilgailuak	2.243.727,74	2.111.335,70	132.392,04
Ekonomia-jarduerak	479.740,52	356.552,79	123.187,73
Hiri-lurren balio gehitzearen gainekoa	318.349,03	242.109,08	76.239,95
Guztira	9.544.593,80	8.939.049,04	605.544,76

“Ondasun higiezinaren gaineko zerga” (OHZ) eta “Jarduera ekonomikoen gaineko zerga” (EJZ) kontzeptuen ondoriozko sarrerak dagokion errolda edo likidazio osagarriak emanda jakinarazten dizkio Gipuzkoako Foru Aldundiak Udalari. Udalak erroldari dagokion zenbatekoa edo aipatutako likidazioen guztizkoa dagokion ekitaldiko sarrera gisa erregistratzen du, ekitaldi horren kontabilitatea itxi ez bada.

3.4 ZEHARKAKO ZERGA, ETA TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Udalaren sarrerren egoera-orriaren kapitulu honetan kontabilizatutako kontzeptu adierazgarrienen xehetasuna honako hau da:

- Eurotan -

ZEHARKAKO ZERGAK			
Kontzeptua	Eskubide likidatuak	Diru-bilketa likidoa	Kobratzeko dagoena
Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga	385.188,24	327.085,23	58.103,01
Guztira	385.188,24	327.085,23	58.103,01

TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK			
Kontzeptua	Eskubide likidatuak	Diru-bilketa likidoa	Kobratzeko dagoena
Ur-hornidura	2.029.608,10	1.462.116,88	567.491,22
Zabor-bilketa	1.954.444,65	1.877.065,75	77.378,90
Estolderia-zerbitzua	884.000,07	638.633,54	245.366,53
Errailak, posteak, kableak eta tximeletak	736.192,15	481.933,81	254.258,34
Bide publikoan aparkatzea (TAO)	642.227,70	592.764,70	49.463,00
Isunak	309.047,36	167.255,00	141.792,36
Itzulketak	232.707,38	225.199,40	7.507,98
Ibilgailuen sarrera	219.913,57	215.294,17	4.619,40
Ibilgailuak erretiratzea (garabia)	218.350,77	195.500,39	22.850,38
Premiamendu-errekarguak	151.597,29	151.597,29	-
Bide publikoko kioskoak	132.665,54	94.459,14	38.206,40
Telekomunikazio-operadoreak	121.288,33	90.055,64	31.232,69
Azoka	97.183,36	77.208,69	19.974,67
Hirigintza-lizentziak	78.395,41	57.945,70	20.449,71
Euskara	72.842,00	51.461,00	21.381,00
Gazteria	63.953,77	63.953,77	-
Etkez etxeko laguntza	57.423,69	52.327,46	5.096,23
Irekitze-lizentzia	50.783,79	35.002,89	15.780,90
Jaiak: feriak, kalez kaleko postuak	46.878,39	46.878,39	-
Irakaskuntza bereziak	42.126,25	42.126,25	-
Errenteria Hiria Kulturgunea	32.148,48	32.148,48	-
Uztargi haurtzaindegia	29.451,90	26.631,20	2.820,70
Hilerria eta beste hainbat hileta-zerbitzu	19.675,70	19.675,70	-
Udal-ondasunen aprobetxamendua	16.880,54	15.920,54	960,00
Estazio fotovoltaikoak	9.724,16	9.724,16	-
Beste hainbat sarrera	63.262,03	53.945,73	9.316,30
Guztira	8.312.772,38	6.776.825,67	1.535.946,71

“Ur-hornidura” eta “Estolderia-zerbitzua” epigrafeetan 2014ko ekitaldian onartutako errolden ondorio diren sarrerak laburbilduta ageri dira, 2013ko ekitaldiko laugarren hiruhilekoari eta 2014ko ekitaldiko lehen hiru hiruhilekoei dagozkienak.

2009ko urtarrilaren 1az geroztik, Uraren Kanonaren Araubide Ekonomiko-finantzarioaren Araudia onartzen duen azaroaren 4ko 181/2008 Dekretua indarrean jarri ostean, tokiko entitateek ur-horniduraren ondoriozko kanona ordainarazi behar dute, Ur Agentziaren kontura, eta sei hilero likidatu beharko da.

Likidatutako kanonaren zenbatekoa beste sarrera-kontzeptu bat bezala erregistratzen da

urari buruzko erroldan eta, ondoren, baliogabetu egiten da erakunde horri ordaintzen zaionean. Kanon horri lotuta egiten diren kobrantzak —udala bitartekaria baino ez da—, aurrekontutik kanpo erregistratu beharko lirateke.

“Errailak, postea, kableak eta tximeletak” epigrafearen barruan, “Lurzorua eta zorupea okupatzea” kontzeptuaren 2014ko 4. hiruhilekoari dagozkion hainbat enpresaren likidazioak kontabilizatzea falta da, batez ere. Likidazio horien zenbatekoa 265.048 eurokoa da udalaren diru-bilketako kargu-orrien arabera, eta 2015ko aurrekontuko sarreraren egoera-orrian erregistratu ditu udalak (ikus *Ikuskaritza Txostena*).

Udalaren mendeko erakunde bakoitzean, dagozkien sarreraren egoera-orrietako “Tasak eta bestelako sarrerak” kapituluaren likidatutako eskubideen kontzeptuko xehetasuna hau da:

- Eurotan -

Kontzeptua	Eskubide likidatuak		
	Zaharren egoitza	Errenteria Musikal	Kirola
Kuotak	1.658.143,80	304.264,10	227.915,62
Beste hainbat sarrera	30.659,73	3.472,54	-
Guztira	1.688.803,53	307.736,64	227.915,62

“Zeharkako zergak” eta “Tasak eta bestelako sarrerak” kapituluaren azaldutako sarrerak, batez ere, Udalak berak edo dagozkion mendeko erakundeak kudeatzen ditu.

3.5 JASOTAKO TRANSFERENTZIA ARRUNTAK ETA KAPITAL TRANSFERENTZIAK

Hona hemen udalaren sarreraren egoera-orriari dagozkion kapitulu hauen osaera:

- Eurotan -

TRANSFERENTZIA ARRUNTAK			
Erakunde emailea	Eskubide likidatuak	Diru-bilketa likidoa	Kobratzeko dagoena
Gipuzkoako Foru Aldundia - UFFF	22.658.132,87	22.433.742,16	224.390,71
Gipuzkoako Foru Aldundia - beste diru-laguntzak	1.496.625,59	1.027.884,56	468.741,03
Eusko Jaurlaritza	1.088.878,46	693.992,74	394.885,72
Estatua	45.619,09	45.619,09	-

- Eurotan -

TRANSFERENTZIA ARRUNTAK			
Erakunde emailea	Eskubide likidatuak	Diru-bilketa likidoa	Kobratzeko dagoena
LANBIDE	5.626,04	5.626,04	-
HABE	360.025,64	263.213,54	96.812,10
HAEE	7.893,08	6.314,46	1.578,62
Beste batzuk	33.585,83	23.356,30	10.229,53
Guztira	25.696.386,60	24.499.748,89	1.196.637,71

- Eurotan -

KAPITAL TRANSFERENTZIAK			
Erakunde emailea	Eskubide likidatuak	Diru-bilketa likidoa	Kobratzeko dagoena
Eusko Jaurlaritzak	476.850,98	261.029,84	215.821,14
Gipuzkoako Foru Aldundia	1.321.845,59	82.361,36	1.239.484,23
EEE	89.781,00	48.088,00	41.693,00
PAPRESA	92.822,00	-	92.822,00
Guztira	1.981.299,57	391.479,20	1.589.820,37

2014ko ekitaldian “Udal Finantzaketarako Foru Funtzaren” kontzeptupean likidatutako eskubideek, Gipuzkoako Foru Aldundiak hiru hilez behin ordaindutako konturako entregez gainera, 2014ko ekitaldiari dagokion udal-partaidetza horren behin betiko likidazioa biltzen dute.

2014ko abenduaren 31ra arte Udalak aitortuta du Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntzaren % 100, 143.894 euroko zenbatekoagatik, “2014-2015 ikasturtean Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programen Garapena” programaren kurtsoa finantzatzeko.

Kontuan hartuz programa honek 2014ko irailtik 2015eko ekainera arte irauten duela, eta, sarreren eta gastuen korrelazioagatik, 2014ko ekitaldia itxi arte 86.336 euro arte heltzen den aitortutako gehiegizko diru-sarrerara dagoela (ikus *Kontu-ikuskapeneko txostena*).

Udalaren mendeko erakunde bakoitzean, dagozkion sarreren egoera-orrietako “Transferentzia arruntak” eta “Kapital-transferentziak” kapituluetan likidatutako eskubideen laburpena ondorengo hau da, erakunde emailearen arabera:

- Eurotan -

TRANSFERENTZIA ARRUNTAK			
Kontzeptua	Eskubide likidatuak		
	Zaharren egoitza	Errenteria Musikal	Kirola
Eusko Jaurlaritza	-	250.050,27	-
Gipuzkoako Foru Aldundia	2.723.799,83	-	37.533,49
Errenteriako Udala	1.334.400,00	1.533.400,00	989.340,00
Enpresak	-	12.000,00	-
Guztira	4.058.199,83	1.795.450,27	1.026.873,49

- Eurotan -

KAPITAL TRANSFERENTZIAK			
Kontzeptua	Eskubide likidatuak		
	Zaharren egoitza	Errenteria Musikal	Kirola
Errenteriako Udala	30.000,00	4.000,00	409.963,75
Guztira	30.000,00	4.000,00	409.963,75

Aurreko paragrafoen arabera, *honako hau gomendatzen dugu:*

⇒ *Ekitaldia ixteko datan, ekitaldiaren aurrekontuari egozte data horretan erakundeari emandako diru-laguntzen ondoriozko diru-sarrerak (guztizkoak nahiz zatikoak), betiere baterako erakunde finantzatzaileei edo kontu-hartzailetzari “itxieraldia” amaitu baino lehen justifikatzen bazaizkie aurreko ekitaldian izandako gastuak.*

3.6 INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA ETA HIRIGINTZA JARDUNEN ONDORIOZKO BESTE HAINBAT SARRERA

Udalaren sarreren egoera-orriaren kapitulu hau osatzen duten eragiketen xehetasuna honakoa da:

- Eurotan -

Kontzeptua	Eskubide likidatuak	Diru-bilketa likidua	Kobratzeko dagoena
Hirigintza-aprobetxamenduak	300.483,03	300.483,03	-
Guztira	300.483,03	300.483,03	-

Sarreraren kontzeptu honen barruan dago Michelena y Lecuona Sucesores, S.L. enpresak egindako sarrera, 280.270 eurokoa, T. López eta R. M^a de Azkue kaleen artean aurreikusitako bidearen finantzaketa-kostuan duen % 25eko partaidetzagatik.

3.7 FINANTZA PASIBOEN ETA FINANTZA GASTUEN ALDAKUNTZA

Sarreraren egoera-orria-

- Eurotan -

Finantza-sarrerak			
Erakunde mailegu-emailea	Aitortutako obligazioak	Ordainketa likidoak	Ordaintzeko dagoena
Kutxabank	904.797,00	904.797,00	-
Guztira	904.797,00	904.797,00	-

2012ko uztailaren 12an, Gipuzkoa - Donostia Kutxa erakundearekin mailegu bat formalizatu zen, 1.904.797 euroko zenbatekoaz, 12 urteko itzulketa-epearekin (bi urteko gabealdia barne), hiru hilez behingo 40 kuotatan itzultzekoa eta Euribor + % 4,95eko interesa duena. 2013ko ekitaldian 1.000.000 euro erabili ziren eta 2014an erabili dira gainerako 904.797 euroak.

Era berean, 2014ko maiatzaren 14an beste mailegu bat formalizatu zen Banco Sabadell-Guipuzcoano erakundearekin, 2.301.252 euroko zenbatekoaz, 10 urteko itzulketa-epearekin (bi urteko gabealdia barne), hiru hilez behingo 32 kuotatan itzultzekoa eta Euribor + % 3,39ko interesa zuena. Mailegu horretatik ez da kantitaterik erabili 2014an.

Gastuen egoera-orria –

Udalaren gastuen egoera-orriaren “Finantza-gastuak” eta “Finantza-pasiboak” kapituluaren osaera honakoa da:

- Eurotan -

FINANTZA GASTUAK			
Kontzeptua	Aitortutako obligazioak	Ordainketa likidoak	Ordaintzeko dagoena
Interesak	206.094,31	206.094,31	-
Berandutze-interesak	31,60	31,60	-
Guztira	206.125,91	206.125,91	-

- Eurotan -

FINANTZA PASIBOAK			
Kontzeptua	Aitortutako obligazioak	Ordainketa likidoak	Ordaintzeko dagoena
Sektore publikoko maileguen amort.	84.859,07	84.859,07	-
Sektore publikoz kanpoko maileguen amort.	2.426.899,37	2.426.899,37	-
Guztira	2.511.758,44	2.511.758,44	-

Era berean, Udalak 2017an itzultzen amaitu beharko lukeen 240.405 euroko mailegua eman zuen Eusko Jaurlaritzak. 2014ko ekitaldian, 2012, 2013 eta 2014 ekitaldietako kuotei dagozkien obligazioak aitortu ditu, 37.588 euroko zenbatekoagatik.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak laguntza batzuk eman zituen, mailegu gisa, epe luzera eta interesik gabe: 2004an 47.271 euro eta 2007an 51.243, GS3-Gecotor-Sabatenea Eraikinean industria-aurriak eraisteko, eta Udalak kapitalaren diru-laguntza gisa erregistratu zituen zegokion aurrekontuan.

Hitzartutako baldintzen arabera, zor den kantitatea gehienez ere sei hilabeteko epean itzuli beharko litzateke, urbanizazio-proiektua onartzen denetik hasita. Baldin eta eraikuntzarik eta urbanizaziorik egingo ez balitz, Hitzarmen sinatzen denetik gehienez ere hamar eguneko epean itzuli beharko litzateke (2004-12-09 eta 2007-12-28).

2014ko ekitaldia ixtean, Udalak ez du aipatutako laguntzekin erlacionatutako gasturik egin, beraz, aipatutako baldintzetan adierazitakoa betez, utzitako kantitateen lehenengoa itzuli du, 47.271 euro, eta gastu gisa erregistratu du *IX Finantza-pasiboen* kapituluan.

Bestalde, “Sektore publikoaz kanpoko maileguen amortizazioa” epigrafean ordaindutako interesak daude erregistratuta, 63.939 euroko kopuruagatik. Beraz, gastuen egoera-orrietako *III. Finantza-interesak* eta *IX Finantza-pasiboak* kapituluetan zenbateko hori gehitu edo gutxitu egin da, hurrenez hurren.

Udalean, 2015eko ekitaldiko aurrekontu-gastutzat hartuko diren 2014ko abenduaren 31 arte sortutako eta ordaindu gabeko interesen zenbatekoa 19 mila eurokoa da, gutxi gorabehera.

Halaber, 2013ko ekitaldian sortutako interesen ondoriozko gastuak 2014ko ekitaldian sartu dira, gutxi gorabehera 14 mila euroko zenbatekoarekin.

Hurrengo taulan ikus daiteke maileguek ekitaldian izan duten bilakaera:

Erakunde mailegu-emailea		Emandako zenbatekoa	Emate-data	Epemuga	14.12.31ko interes-tasa	13-12-31ko saldoa	2014an erabilitakoa	2014ko bilakaera		14-12-31ko saldoa	Erabilgarria
								Interesak	Amortizazioa		
Kutxabank	2514076450	1.532.580,87	30/07/1999	01/09/2014	-	102.227,16		239,74	102.227,16	-	
Kutxabank	2514628102	2.574.080,75	13/09/2000	01/10/2015	0,28%	407.408,76		1.471,04	232.413,18	174.995,58	
Kutxabank	2515416549	1.883.571,94	20/07/2001	20/07/2016	0,28%	406.198,54		1.560,28	161.932,80	244.265,74	
Kutxabank	2516215064	2.900.000,00	05/09/2002	05/09/2017	0,23%	981.214,24		3.615,13	243.838,21	737.376,03	
Kutxabank	2516816424	2.150.000,00	21/10/2003	21/10/2018	0,23%	900.876,87		3.385,30	178.741,29	722.135,58	
Kutxabank	2518115668	1.300.000,00	28/12/2005	21/03/2021	0,23%	757.832,65		2.916,87	103.230,66	654.601,99	
Kutxabank	2517478216	1.374.000,00	29/12/2004	29/12/2019	0,23%	704.829,20		2.690,01	111.595,58	593.233,62	
Kutxabank	2518541640	1.719.000,00	27/11/2006	27/11/2021	0,23%	1.087.745,42		4.207,36	134.078,14	953.667,28	
Kutxabank	2518996679	1.419.000,00	14/05/2007	14/05/2022	4,16%	1.011.369,15		41.063,55	101.364,25	910.004,90	
Kutxabank	2519893354	1.095.175,00	02/05/2008	02/05/2023	0,23%	875.403,58		3.365,84	88.226,76	787.176,82	
Kutxabank	2521373304	1.523.890,00	11/11/2011	11/11/2026	2,58%	1.499.919,65		40.801,68	97.378,11	1.402.541,54	
Kutxabank	2521613865	1.904.797,00	16/07/2012	16/07/2024	5,28%	1.000.000,00	904.797,00	77.682,85	(*) 47.619,93	1.857.177,07	
Banco de Crédito Local	17618146	1.020.290,17	16/07/1999	16/07/2014	1,50%	78.483,57		497,34	78.483,85	-	
Banco de Crédito Local	42164245	1.883.674,11	20/07/2001	20/07/2016	0,28%	398.469,58		1.370,06	144.898,03	253.571,55	
Banco de Crédito Local	42787004	1.290.993,00	05/09/2002	05/09/2017	0,28%	372.401,99		1.173,13	99.307,13	273.094,86	
Banco de Crédito Local	9544045088	861.503,00	28/12/2005	28/12/2020	0,26%	422.769,22		1.484,28	66.269,46	356.499,76	
Banco de Crédito Local	9544542527	710.687,00	21/10/2003	21/10/2018	0,27%	463.886,19		970,00	54.668,22	409.217,97	
Banco de Crédito Local	9543393061	916.000,00	29/12/2004	29/12/2019	0,28%	273.341,10		1.300,15	70.461,55	202.879,55	
BBVA	0182.5709.07346691.06	473.000,00	21/05/2007	21/05/2022	0,29%	302.714,00		13.690,75	37.841,11	264.872,89	
La Caixa	30823735319	1.146.000,00	01/11/2006	01/11/2021	0,29%	705.230,80		2.407,85	88.153,84	617.076,96	
La Caixa	30866167278	473.000,00	01/06/2007	01/06/2022	1,56%	309.269,27		14.385,26	36.384,62	272.884,65	
La Caixa	30955734192	1.090.000,00	05/05/2008	05/05/2023	0,29%	817.499,98		38.649,05	83.846,16	733.653,82	
Banco Sabadell Guipuzcoano	1001604	2.301.252,00	14/05/2014	14/05/2024	3,39%	-		-	-	-	2.301.252,00
Eusko Jaurlaritza		-	-	-	-	85.840,89		11.104,62	37.588,00	48.252,89	
Eusko Jaurlaritza (aurriak)		-	2004	2014	-	47.271,07		-	47.271,07	-	
Eusko Jaurlaritza (aurriak)		-	2007	2017	-	51.242,58		-	-	51.242,58	
2014AN ITXITAKO AURREKONTUEN ALDAKUNTZA						14.063.445,46	904.797,00	270.032,14	2.447.819,11.	12.520.423,63	2.301.252,00

(*) Deskoadratzea dago mailegu honen interesen eta amortizazioaren artean, Udalak 63.939 euro oker kontabilizatu baititu amortizazio gisa, eta zinez interesak ziren.

3.8 LANGLE GASTUAK

Udalaren gastuen egoera-orriaren kapitulu honi dagozkion obligazioen banakatzea honako hau da:

-Eurotan -

Kontzeptua	Aitortutako obligazioak	Ordainketa likidoak	Ordaintzeko dagoena
Soldata eta alokairuak			
Kabineteetako behin-behineko langileen ordainsariak	343.579,24	343.579,24	-
Funtzionarioen ordainsariak	10.763.103,16	10.763.103,16	-
Lan-kontratuko langile finkoen ordainsariak	224.552,93	224.552,93	-
Lan-kontratuko behin-behineko langileen ordainsariak	511.261,20	511.261,20	-
Soldata eta alokairuak guztira	11.842.496,53	11.842.496,53	-
Gizarte-kargak			
Gizarte Segurantzza	2.915.916,77	2.915.916,77	-
Prestakuntza	4.429,99	4.075,00	354,99
Elkarkidetza	266.806,42	266.806,42	-
Bizitza- eta istripu-aseguruak	65.264,35	65.264,35	-
Laguntza medikoa-farmazeutikoa	22.139,48	22.139,48	-
Erretiro aurreratuengatikoa kalte-ordainak	24.953,04	24.953,04	-
Karga sozialak guztira	3.299.510,05	3.299.155,06	354,99
Guztira	15.142.006,58	15.141.651,59	354,99

“Kabineteetako behin-behineko langileen ordainsariak” epigrafean eta “Funtzionarioen ordainsariak” epigrafean erregistratuta daude alkatearen eta bost zinegotziren nominak daude erregistratuta; erabat liberatuta eta % 100eko dedikazioarekin egon dira. Halaber, bertan erregistratuta daude hurrenez hurren % 90eko eta % 70eko dedikazioarekin egon diren beste bi zinegotziren nominak eta 2014ko abuztuaren 31ra arte % 50eko dedikazioarekin egon den beste zinegotzi batena.

2013ko abenduaren 31n indarrean zeudenak kontuan hartuz, 2014ko ekitaldian zehar ez da soldata-igoerarik egon, 2014ko Estatuko Aurrekontu Orokorren abenduaren 27ko 17/2012 Legearen 22. artikuluan xedatutakoa jarraituz.

Hala ere, 2014ko ekitaldian ordaindu zaie udal langileei 2012an kendutako aparteko ordainsaria, 2014ko ekainaren 25ean Alkatetzaren dekretu bidez onartutako “Pentsio-planerarako ekarpena” kontzeptupean, eta horrek eragindako gastua honako hau izan da:

- Udala: 685.133 euro

- Kirol Patronatua: 8.983 euro
- Errenteria Musikal: 85.189 euro
- Adinduen Egoitza: 39.454 euro.

1993ko martxoaren 31n Toki Administrazioako Funtzionarioen Gizarte Segurantzaren Erregimen Bereziaren aplikazio-eremuan barne hartuta zeuden Udaleko langile aktiboak eta pasiboak Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean integratuta geratu ziren 1993ko apirilaren 1etik aurrera.

Gizarte Segurantzak bere gain hartzen dituen obligazioen ondoriozko integrazio-kostuak estaltzeko konpentsazio ekonomiko gisa, Udalak aipatutako langile aktiboaren kontingentzia arrunten ondoriozko kotizazio-oinarrien gainean % 8,2ko kotizazio gehigarria egingo du hogeitertan, 1996ko urtarrilaren 1etik hasita. Kontzeptu horren ondorioz aitortutako obligazioak 160.687 eurokoak izan ziren 2014an.

Udalak ekitaldi bakoitzean eta ordainketak egiteko unean erregistratzen du kontzeptu honen ondoriozko aurrekontu-gastua.

Udalan 2014ko abenduaren 31n honako langile hauek ari dira lanean:

Kontzeptua	Langile kopurua		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Goi-karguak	4	5	9
Funtzionarioak	123	149	272
Lan-kontratuko langile finkoak	6	1	7
Lan-kontratuko aldi baterakoak	28	4	32
Behin-behineko langileak	2	-	2
Guztira	163	159	322

Udalaren mendeko erakunde bakoitzean, dagozkien gastuen egoera-orrietako “Langile-gastuak” kapituluaren aitortutako obligazioen xehetasuna, kontzeptua, hau da:

- Eurotan -

Kontzeptua	Aitortutako obligazioak		
	Zaharren egoitza	Errenteria Musikal	Kirola
Soldata eta alokairuak	611.332,25	1.370.075,75	135.171,88
Gizarte-kargak	165.053,28	408.417,73	34.349,41
Guztira	776.385,53	1.778.493,48	169.521,29

3.9. ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN GASTUAK

Udalaren gastuen egoera-orriko kapitulu honetan kontabilizatutako kontzeptu adierazgarrienen xehetasuna hauxe da:

-Eurotan -

Kontzeptua	Aitortutako obligazioak	Ordainketa likidoak	Ordaintzeko dagoena
Beste enpresa batzuek egindako lanak	10.235.479,16	9.210.248,94	1.025.230,22
Ur-hornidura	1.674.608,59	1.392.837,78	281.770,81
Konponketak, mantentze-lanak eta kontserbazioa	823.361,72	743.630,07	79.731,65
Energia elektrikoaren hornidura	470.881,18	426.327,33	44.553,85
Herriko argiak	383.512,66	345.147,23	38.365,43
Jarduera soziokulturalak	311.634,98	281.737,68	29.897,30
Komunikazioak	295.715,69	292.311,02	3.404,67
Gas- eta erregai-hornidura	206.343,57	172.966,17	33.377,40
Aseguru-primak	204.799,61	201.032,34	3.767,27
Jaiak	157.079,21	131.641,45	25.437,76
Kanpainak	113.489,04	107.067,71	6.421,33
Bestelako hornidurak	90.413,17	84.014,78	6.398,39
Beste hainbat gastu	82.455,82	60.380,13	22.075,69
Bulegoko materiala	72.956,02	62.149,99	10.806,03
Publizitatea eta propaganda	70.058,01	63.766,16	6.291,85
Bestelako kalte-ordainak	60.888,25	60.528,25	360,00
Dietak, lokomozioa eta joan-etorriak	19.207,94	16.451,24	2.756,70
Gastu juridikoak	17.334,41	12.825,17	4.509,24
Errentamenduak	16.311,05	9.292,80	-
Kanona	12.264,00	12.264,00	-
Garraioak	5.839,33	5.329,09	510,24
Beste gastu batzuk	137.547,26	114.924,27	22.622,99
Guztira	15.462.180,67	13.806.873,60	1.655.307,07

2014ko ekitaldian beste enpresa batzuek egindako lanak honako taula honetan ikus daitezke:

-Eurotan -

Kontzeptua	Aitortutako obligazioak	Ordainketa likidoak	Ordaintzeko dagoena
Garbiketa eta hondakin-bilketa	2.446.078,19	2.225.100,65	220.977,54
Mankomunitateak eta partzuergoak: San Markos	1.813.605,66	1.541.348,23	272.257,43
Kale-garbiketa	1.593.617,62	1.470.317,94	123.299,68
Etkez etxeko laguntza-zerbitzua	1.069.442,34	972.316,54	97.125,80
TAO zerbitzua eta ibilgailuak erretiratzea	1.029.049,78	920.761,46	108.288,32
Beste enpresa batzuek egindako beste lanak	647.175,84	575.195,76	71.980,08

-Eurotan -

Kontzeptua	Aitortutako obligazioak	Ordainketa likidoak	Ordaintzeko dagoena
Aldi baterako ostatu hartzeko etxebizitzak	454.119,44	395.240,21	58.879,23
Aisia-jarduerak	384.198,55	367.351,22	16.847,33
Lanbide-hastapeneko zentroaren kontratua	324.258,28	324.258,28	-
Familian esku hartzea	119.470,14	118.367,95	1.102,19
Informatika-zerbitzua	84.176,02	68.712,58	15.463,44
Egonaldiak egoitzetan	70.155,08	64.046,76	6.108,32
Besteak	64.097,62	51.582,14	12.515,48
Eskola- eta haur-jarduerak	56.099,75	41.339,37	14.760,38
Agenda 21	46.532,46	40.907,46	5.625,00
Azterlan eta lan teknikoak	33.402,39	33.402,39	-
Guztira	10.235.479,16	9.210.248,94	1.025.230,22

“Mankomunitateak eta partzuergoak: San Markos” epigrafearen barruan, San Markos Mankomunitatearen defizita finantzatzeko ekarpenetik eratorritako gastu aitortuak biltzen dira, 437.996 euroko zenbatekoaz (*Ikus Kontu-ikuskapeneko txostena*).

“TAO zerbitzua eta ibilgailuak erretiratzea” epigrafean 2014an bi zerbitzuek egindako gastuak barne hartu dira, eta ondoren adierazi da dagokion xehetasuna, zerbitzuarekin erlazioatutako sarrerei dagokiena eta gastuei dagokiena:

-Eurotan -

Kontzeptua	Aitortutako obligazioak	Eskubide likidatuak (3.4. atala).	Superabita/(Defizita)
TAO zerbitzua	709.212,26	685.487,85	(23.724,41)
Ibilgailuak erretiratzeko zerbitzua (garabia)	314.997,52	145.645,34	(169.352,18)
Kontratari ez dagozkion beste batzuk	4.840,00	29.445,32	24.605,32
Guztira	1.029.049,78	860.578,47	(168.471,31)

Gure lana egitean, 2013ko ekitaldiaren itxieran jada sortu diren 75.952 euroko diru-sarrerak aurrekontuan jaso ez direla hauteman dugu. Sarrera horiek aipatutako 2013ko ekitaldiko abenduari dagozkion TAO eta garabia zerbitzuen fakturekin lotzen dira batez ere.

Udalaren mendeko erakundeetan, hurrenez hurrengo gastuen egoera-orrietako “Ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuak” kapituluaren aitortutako obligazioen kontzeptukako xehetasuna honakoa da:

- Eurotan -

Kontzeptua	Aitortutako obligazioak		
	Zaharren egoitza	Errenteria Musikal	Kirola
Konponketak, mantentze-lanak eta kontserbazioa	220.376,11	5.128,72	59.567,75
Hornidurak	147.103,05	36.477,08	336.888,75
Bestelako enpresek egindako lanak	4.147.976,84	52.930,94	537.979,15
Ondasun eta zerbitzuen beste erosketak	384.385,00	46.231,82	2.590,75
Guztira	4.899.841,00	140.768,56	937.026,40

Adinduen egoitzak kontabilizatu dituen bestelako enpresek egindako lanak, funtsean, langileak eta zerbitzu medikoa azpikontratatzeari dagozkio.

3.10 EMANDAKO TRANSFERENTZIA ARRUNTAK ETA KAPITAL TRANSFERENTZIAK

Udalaren gastuen egoera-orriko kapitulu hauen osaera honakoa da:

- Eurotan -

TRANSFERENTZIA ARRUNTAK			
Onuraduna	Aitortutako obligazioak	Ordainketa likidoak	Ordaintzeko dagoena
Mendeko erakunde autonomoak	3.860.333,80	3.722.179,07	138.154,73
Mankomunitateak eta partzuergoak	40.731,43	40.731,43	-
Familiak	1.199.066,72	1.029.472,17	169.594,55
Irabazi-asmorik gabeko erakundeak	737.710,03	646.170,19	91.539,84
Enpresa pribatuak	464.423,00	329.189,00	135.234,00
Beste erakunde publiko batzuk	30.610,03	25.529,45	5.080,58
Errenkoaldea	15.500,00	15.500,00	-
Oarsoaldea, SA	736.409,95	731.024,72	5.385,23
Guztira	7.084.784,96	6.539.796,03	544.988,93

- Eurotan -

KAPITAL TRANSFERENTZIAK			
Onuraduna	Aitortutako obligazioak	Ordainketa likidoak	Ordaintzeko dagoena
Mendeko erakunde autonomoak	447.743,26	431.891,11	15.852,15
Behemendi	28.992,79	-	28.992,79
Errenteria Garatuz	308,86	308,86	-
Guztira	477.044,91	432.199,97	44.844,94

Hauxe da erakunde autonomoei egindako ekarpen arrunten xehetasuna:

- Eurotan -

Erakunde autonomoak	Aitortutako obligazioak	
	T. arruntak	Kapital-t.
Zaharren egoitza	1.337.593,80	30.000,00
Errenteria Musikal	1.533.400,00	7.779,51
Kirol Patronatua	989.340,00	409.963,75
Guztira	3.860.333,80	447.743,26

Udalak ez du oinarritzko arau bat diru-laguntzak emateko prozedurari buruz, 2003ko ekitaldian, diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea indarrean jarri arren. Aipatutako legea mota horretako espedienteak bideratzeko aplikatzekoa da.

Aurreko paragrafoen arabera, *honako hau gomendatzen dugu*:

⇒ *Diru-laguntzak emateko prozedura araupetuko duen oinarritzko arau bat onartzea.*

Araudi horrek diru-laguntzak emateko irizpidea eta prozedurak egituratu eta finkatzea izango luke helburu, toki-eskumenari esleitutakoak osatu edo ordezkatzeko dituzten zerbitzu eta jardueretarako prestazio horiek aukera-berdintasunean eskuratzeko aukera bermatzeko herritarrei eta erakundeei.

Araudia idazterakoan honako alderdi hauek kontuan hartu beharko lirateke:

✓ *Diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak eta diru-laguntzarik jaso ezin dutenak zehaztea, gastuaren izaeraren edo kolektibo onuradunaren ezaugarrien arabera elkartz.*

- ✓ *Definitutako multzo bakoitzerako prozedura-arauak zehaztea:*
 - *Eskatzaileen ezaugarriak.*
 - *Eskatzaileari eska dakioken dokumentazioa.*
 - *Diru-laguntzak emateko irizpideak.*
 - *Diru-laguntzak kobratzeko baldintzak:*
 - *Zerga-betebeharrak egunean izatearen egiaztagiria.*
 - *Jarduerak burutzeko epeak.*
 - *Jardueren memoria edo egindako gastuen euskarri-dokumentazioa entregatzea.*

- ✓ *Kontu-hartzaitzako kontrolarekin zerikusia duten jarduketak.*

3.11. INBERTSIO ERREALAK

Udalaren gastuen egoera-orrigo kapitulu honetan kontabilizatutako kontzeptu adierazgarrienen xehetasuna hauxe da:

- Eurotan -

Kontzeptua	Aitortutako obligazioak	Ordainketa likidoak	Ordaintzeko dagoena
Eraikinak eta bestelako eraikuntzak	2.946.524,20	1.823.990,14	1.122.534,06
Azpiegitura eta urbanizazioa	704.825,51	620.147,17	-
Plangintza	548.200,38	500.529,20	47.671,18
Lursailak	200.000,00	200.000,00	-
Makineria, instalazioak eta tresneria	190.681,00	190.681,00	-
Garraio-materiala	160.580,98	147.257,31	13.323,67
Informazio-prozesuetarako tresneria	106.849,50	74.369,11	32.480,39
Funts bibliografikoak	41.892,23	39.619,21	2.273,02
Altzariak	11.472,40	9.274,16	2.198,24
Beste zenbait inbertsio	7.217,75	6.564,35	653,40
Proiektu konplexuak	4.764,15	4.764,15	-
Guztira	4.923.008,10	3.617.195,80	1.305.812,30

Kapitulu honek ez ditu tresneria eta hornidura txikiagoen erosketak barne hartzen; horiek “Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak” kapituluaren barruan erregistratzen dira.

Aurreko “Azpiegitura eta urbanizazioa” eta “Plangintza” epigrafeen barruan sartuta daude 2014ko ekitaldian gauzaturiko ondorengo obra azpimarragarrienak:

- Eurotan -

Obra	Aitortutako obligazioak
Ikastetxeak birgaitzea	702.416,72
San Marko 7-9 lokala egokitzea (Beraun)	101.365,25
Beraun Kaputxinoetako igerilekuak	271.804,75
Lekuona eraikina, egitura-mailako egokitzea	1.645.877,86

Aurreko “Azpiegitura eta urbanizazioa” epigrafearen barruan sartuta daude 2014ko ekitaldian gauzaturiko ondorengo obra azpimarragarrienak:

- Eurotan -

Obra	Aitortutako obligazioak
Fanderia presa berritzea	264.137,90
Kalea asfaltatzea	157.225,94
Don Bosco ikastetxea berritzeko obra	155.399,38
Agustinetako igogailua	84.177,17

“Plangintza” epigrafearen barruan daude erregistratuta Biteri kalean oinezkoekin elkarbizitza errazteko zoladura-obregatik obligazioak, 229.486 euroko kopuruagatik. Gastu horren izaera kontuan hartuta, zuzenagoa zen aurreko “Azpiegitura eta urbanizazioa” kontzeptuan erregistratzea.

3.12. DIRUZAINTZAKO FUNTS LIKIDOAK

2014ko abenduaren 31ko diruzaintzako egoera-orririk, aurrekontu-eragiketei eta aurrekontuz kanpokoei esleitutako ondoko funts-izakinak ondorioztatzen dira:

- Eurotan -

Eragiketak	Zenbatekoa
Aurrekontukoak	2.707.178,14
Aurrekontuz kanpokoak	(832.983,65)
Eskudiruko izakinak guztira	1.874.194,49

Eskudiruzko izakinen zenbatekoa hainbat banku-erakundetako kontuetan zegoen gauzatuta, ondoko xehetasunaren arabera:

- Eurotan -

Entitatea	Zenbatekoa
Kutxa, eskudirutan	148,49
La Caixa	45.354,09
Kutxabank	1.729.300,64
BSCH	5.545,42
Caja Laboral - Euskadiko Kutxa	8.655,58
Banco Sabadell Guipuzcoano	772,85
BBVA	83.255,86
Caja Rural Navarra	1.161,56
Eskudiruko izakinak guztira	1.874.194,49

Gainera, udala titular duten zenbait banku-kontu ez daude barne hartuta diruzaintzako egoera-orri horretan, itxieran 633 euroko saldoa zutenetan. Kontu horiek Zerga-bilketa Sailaren kudeaketa-kontuei dagozkie.

Caja Rural de Navarra eta BBVA erakundeek egin diegun eskaerari emandako erantzunetan ez dituzte baimendutako sinadurak sartu.

3.13. AITORTUTAKO ESKUBIDEEN ONDORIOKO ZORDUNAK

Udalak erregistratutako 2014ko abenduaren 31n kobratzeko zeuden aurrekontu-eskubideen kapituluko osaera eta antzinasunaren xehetasuna, 2014ko ekitaldian zehar likidatutakoak nahiz aurreko ekitaldietan likidatutakoak barne hartzen dituena, honakoa da:

- Eurotan -

AURREKONTUKO ZORDUNAK				
Kapitulua	2012 eta aur.	2013	2014	Guztira
1- Zuzeneko zergak	757.964,22	387.495,65	605.544,76	1.751.004,63
2- Zeharkako zergak	55.831,08	592,75	58.103,01	114.526,84
3- Tasak eta bestelako sarrerak	603.819,40	235.266,46	1.535.946,71	2.375.032,57
4- Transferentzia arruntak	-	-	1.196.637,71	1.196.637,71
5- Ondare-sarrerak	4.462,12	1.689,63	207.909,63	214.061,38
7- Kapital-transferentziak	-	-	1.589.820,37	1.589.820,37
8- Finantza-aktiboak	271,72	2.250,00	6.425,00	8.946,72
Guztira	1.422.348,54	627.294,49	5.200.387,19	7.250.030,22

“Tasak eta bestelako sarrerak” kapituluan “Trafiko-isunak” kontzeptuagatik 549.560 euro kobratzeko daudela agertzen da 2014ko abenduaren 31n. Bestalde, “Isunak” zein “Zigorak” kontzeptuagatik, data horretan kobratzeko guztira 525.989 euro daudela adierazten da bilketako aplikazioan. Gure lana egiterakoan ezin izan dugu bi aplikazio horien arteko 23.571 euroko diferentziaren jatorria egiaztatu.

21/2003 Foru Arauak ezartzen duenez, gauzatzen zailak edo gauzaezinak diren eskubideen kopuruaren zehaztapena banan-banan nahiz hainbesteko ehuneko bat finkatzearen bidez egin behar da, zorren antzintasuna, horien zenbatekoa, baliabideen izaera, borondatezko aldiko nahiz betearazte-bideko zerga-bilketaren ehunekoak eta abar kontuan hartuta. Nolanahi ere, behar bezala aitortutako eskubideak, kontuetan jaso direnetik 24 hilabetetik gorako antzintasuna dutenak, gauzatzen zailtzat edo gauzaezintzat joko dira, behar bezala bermatuta ez badaude eta likidatzen den ekitaldiaren hurrengoan kobratzea aurreikusten ez bada behintzat.

Eskubide bat gauzatzen zailtzat edo gauzaezintzat jotzeak, ez dakar eskubide horren baliogabetzerik, ezta kontuetako bajaran ere.

2014ko abenduaren 31n kobratzeko dauden saldoen guztizko horretatik, Udalak, funtsean kobraezin-ehuneko bat aplikatuz kontabilizatutako hondarren antzintasunaren arabera, guztira 2.114.639 euro gauzatzen zailtzat edo gauzaezintzat har daitezkeela kalkulatu du. Zenbateko hori aipatutako kontzeptuaren arabera kendu da itxiera-datako diruzaintzako soberakin gordinetik.

Hala ere, Udalak kobratzeko dauden kopuruak kalkulatzeko Lurzorua, hegalak eta zorupea okupatzeko tasa, Bide publikoan aparkatzea edo Euskaltegiaren sarrerak kontzeptuak barne hartu ditu eta 2015eko hasieran kobratu dira guztiak. Kontzeptu horiek kontuan hartu izan ez balira, gauzatzeko zailak edo ezinezkoak diren eskubideak 2.048.180 euroko kopurura iritsiko ziren, Udalak proposatutako doikuntza baino 66.459 euro gutxiago.

3.14 AURREKONTUZ KANPOKO ZORDUNAK ETA HARTZEKODUNAK

Aurrekontu-sarrera eta -gasturik ez dakarten eragiketen bidez esleitu diren ordaintzeko edo kobratzeko kontuen 2014ko abenduaren 31ko xehetasuna honakoa da:

- Eurotan -

AURREKONTUZ KANPOKO ZORDUNAK	
Kontzeptua	Zenbatekoa
Aurrekontuz kanpoko bestelako zordunak	8.478,24
Epe laburrerako ezarpenak	2.500.000,00
Ogasun Publikoa, BEZaren ondoriozko zordun	19.949,92
BEZaren ondoriozko zordunak	78.971,76
Guztira	2.607.399,92

- Eurotan -

AURREKONTUZ KANPOKO HARTZEKODUNAK	
Kontzeptua	Zenbatekoa
Jasotako fidantzak eta gordailuak	1.039.080,40
Ogasun Publikoa, BEZaren ondoriozko hartzekodun	24.343,76
Ogasuna, beste kontzeptu batzuen ondoriozko hartzekodun	289.136,96
Gizarte-aurreikuspeneko erakunde hartzekodunak	387.057,14
BEZaren ondoriozko hartzekodunak	34.798,01
Guztira	1.774.416,27

“Epe laburrerako ezarpenak” kontuaren saldoan funtsean biltzen dira diruzaintzako puntuen emaitzazko funts likidoen inbertsioak, finantza-errendimendu hobeak lortzeko asmoz. 2014ko abenduaren 31ko bankuko datuen arabera, 2.500.000 eurokoa da ezarpenaren zenbatekoa eta Banco Sabadell-Guipuzcoano erakundeari dagokio.

"Ogasun Publikoa, BEZaren ondoriozko zordun" kontuaren 2014ko abenduaren 31ko saldoak 2013an egindako aipatutako zergaren likidazioari dagokion zenbatekoa jasotzen da. Saldo hori 2014ko aitortenetan konpentsatu da eta aipatutako itxiera-datan oraindik ez da kontabilitatean erregularizatu.

Bestalde, “Ogasun Publikoa, BEZaren ondoriozko zordun” kontuaren azken saldoak Ogasun Publikoarekin izandako saldo zordun eta hartzekodunen ekitaldiaren itxiera-datako konpentsazioa biltzen du. Saldo horiek Udalak ur-hornidurako zerbitzua egiteko burututako jardueren ondorioz jasandako eta jasanarazitako zergaren kuotak kontabilizatzearen ondorio dira batik bat.

Hala ere, saldo horiek ez datoz bat konpentsatu beharreko 390 ereduaren likidazioarekin (22.819 euro). Lehen aipatu denaren ondorioz, 2014ko abenduaren 31n saldo horiek zuzendu izan balira, aurrekontuaren emaitza altuago izango zen, 27.213 eurokoa hain zuzen ere.

Era berean, "Jasotako fidantzak eta gordailuak" kontzeptuko kontuetan kontabilizatutako esku-diruzko balioek ekitaldian zehar edo aurreko ekitaldian esku-dirutan kutxan edo banketxeetan eraturako Udalaren jabetzako ondasunak biltzen dituzte. Oro har, aipaturako esku-diruaren hartzekodun diren hirugarrenen exiji ditzaketen eskubideak dira.

Gainera, egindako ikuskapenaren ondorioz, antzeman da jasotako zenbatekoek kasu batzuetan 1948ko antzintasuna duten saldoak jasotzen dituztela. Udalak saldo horiek aurrekontu arruntera pasa beharko lituzke.

“BEZaren ondoriozko zordunak” eta “BEZaren ondoriozko hartzekodunak” kontuetan zergapetuta eta salbuetsi gabe dauden erlazionatutako jardueren ondorioz hirugarrenekin sortutako zorrak biltzen dira, zerga horren kuotak jasaten dituztenak edo jasanarazten zaizkienak hain zuzen ere.

“Ogasun Publikoa, beste zerga-kontzeptu batzuen ondoriozko hartzekodun” kontuan, udaleko langileen nominan egindako atxikipenen ondorioz eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren (PFEZ) kontura bere zerbitzuan aritu diren hainbat profesionali ordaindutako zerbitzuetan egindako atxikipenen ondorioz Ogasun Publikoarekin dagoen zorra erregistratzen da. Ekitaldiaren itxierako saldoa udal-langileen nominetan 2014ko abenduan egindako atxikipenek osatzen dute funtsean.

“Gizarte-aurreikuspeneko erakunde hartzekodunak” errubrikaren saldoak 2014ko abenduko nominan udal-langileei egindako atxikipenen eta udalak hainbat organismo eta erakunderi (Gizarte Segurantzari, SASFALi, eta Elkarkidetza BGAERI, batik bat) egindako ekarpenen ondorioz 2014ko abenduaren 31n erakunde horiei ordaintzeko zegoen zenbatekoa jasotzen du.

Aurreko paragrafoen arabera, *honako hau gomendatzen dugu*:

- ⇒ *“Jasotako fidantzak eta gordailuak” ataleko kontuen barruan kontabilizatuta agertzen diren fidantzen eta gordailuen eskagarritasun-maila aztertzea eta, egindako lanaren emaitzaren arabera, hala badagokio, horiek itzuli edo erregularizatzea (aurrekontu arruntean sartuta).*
- ⇒ *Ekitaldiaren amaieran aurrekontuz kanpoko kontuetan jasotako saldoa doitzea, erakundearentzat data horretan egiazkoak diren eskubideen eta obligazioen arabera, eta aurrekontuaren bitartez antzemandako diferentziak egozte.*

3.15 ERANTSI BEHARREKO KREDITU SOBERAKINAK

Udalean baliogabetu ez diren eta 2015eko ekitaldiko aurrekontuari erantsi zaizkion kreditu-soberakinen kapitulukako osaera eta antzinatasunaren xehetasuna honakoa da:

- Eurotan -

KREDITU SOBERAKINAK			
Kapitulua	2013	2014	Guztira
2- Ondasunen erosk. eta zerbitzuak	34.533,03	481.592,23	516.125,26
4- Transferentzia arruntak	51.967,64	573.550,41	625.518,05
6- Inbertsio errealak	210.457,56	3.745.679,36	3.956.136,92
7- Kapital-transferentziak	-	15.000,00	15.000,00
Guztira	296.958,23	4.815.822,00	5.112.780,23

Kreditu-soberakin horiek 2015eko ekitaldiko aurrekontuari eranstea honako hauen kargura finantzatuko da:

- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako soberakina 392.838 euro
- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina 2.033.642 euro
- Sarrera-konpromisoak: finantza-pasiboak 2.605.607 euro
- Sarrera-konpromisoa: Beraun Kaputxinoetako igerilekua 80.694 euro

Araudiak ez du onartzen kreditu-soberakinak behin eta berriz eranstea, baliabide finalistekin finantzatzen diren kapital-eragiketen kasuan izan ezik.

4 ERAKUNDE AUTONOMOETAKO ARLO INTERESGARRIAK

Erakunde autonomoen aurrekontuen likidazioa Errenteriako Udaleko alkateak onartu zuen eta 2014ko aurrekontu-ekitaldian garatutako jarduera jasotzen du.

Horietako bakoitzean gertakari adierazgarritzat edo hobetu daitezkeen alderditzat ondokoak jasotzen ditugu:

4.1 ADINDUEN EGOITZAREN UDAL PATRONATUA

Egoitzaren gastu-aurrekontua gauzatzeak ez ditu bereizten “Baimendua”, “Baliatua” eta “Aitortutako obligazioa” faseak eta hirurak ere gastua aitortzeko unean metatzen ditu.

Hala ere, 2014ko ekitaldian ordaindu zaie udal langileei 2012an kendutako aparteko ordainsaria, 2014ko ekainaren 25ean Alkatzaren dekretu bidez onartutako “Pentsio-planetarako ekarpena” kontzeptupean, eta 39.454 euroko gastua eragin du (3.8. atala).

Bestalde, 2014ko aurrekontuan 13.141 euroko balioa duten obligazioak erregistratu dira Egoitzaren VI *Inbertsio errealak* kapituluan, obra-aurrekontu baten kostuaren zenbatespenak kontuan hartuta, baina obra hori egin gabe dago itxiera-datan. Hortaz, 2014ko abenduaren 31n gastu orokorretarako Aurrekontuaren emaitza eta Diruzaintzako soberakina aipatutako kopuruaren azpitik baloratuta daude.

2014ko abenduaren 29an Egoitzak 302.132 euroko taloi bat eman zuen eta eragiketa hori kontabilizatu gabe geratu zen ekitaldiaren itxieran. Ondorioz, 2014ko abenduaren 31n gastu orokorretarako Diruzaintzako soberakinean barne hartutako “Diruzaintzako funts likidoak” eta “Ekitaldi arrunteko aurrekontuko hartzekodunak” epigrafeetako saldoak aipatutako kopuruaren azpitik baloratuta daude.

Aurreko oharren arabera, *honako hau gomendatzen dugu:*

⇒ *Aurrekontua gauzatzeko faseak errespetatzea.*

⇒ *Bankuko taloien bitartez egiten diren ordainketak erregistratzea, taloia jalkitzen den unean.*

4.2 ERRENTERIA MUSIKAL PATRONATUA

Egoitzaren gastu-aurrekontua gauzatzeak ez ditu bereizten “Baimendua”, “Baliatua” eta “Aitortutako obligazioa” faseak eta hirurak ere gastua aitortzeko unean metatzen ditu (nahiz eta kasu zehatz batzuetan ekitaldi amaieran bereizten hasi diren).

Hala ere, 2014ko ekitaldian ordaindu zaie udal langileei 2012an kendutako aparteko ordainsaria, 2014ko ekainaren 25ean Alkatetzaren dekretu bidez onartutako “Pentsio-planetarako ekarpena” kontzeptupean, eta 85.189 euroko gastua eragin du (3.8. atala).

Aurreko oharren arabera, *honako hau gomendatzen dugu:*

⇒ *Aurrekontua gauzatzeko faseak errespetatzea, indarrean dagoen araudian ezarritako moduan.*

4.3 UDAL KIROL PATRONATUA

Patronatu honen gastu-aurrekontua gauzatzeak ez ditu bereizten “Baimendua”, “Baliatua” eta “Aitortutako obligazioa” faseak.

Patronatuaren aurrekontuari egindako aldaketak gorabehera, aurrekontua egikaritzeko arauan ezarritako kredituen lotura juridikoaren mailen arabera, lotura-maila batzuetan aurrekontu-kontsignazioa 6.982 euroko zenbatekoaz gainditu du baimendutako gastuak *VIII Finantza-aktiboak* kapituluan.

Hala ere, 2014ko ekitaldian ordaindu zaie udal langileei 2012an kendutako aparteko ordainsaria, 2014ko ekainaren 25ean Alkatetzaren dekretu bidez onartutako “Pentsio-planetarako ekarpena” kontzeptupean, eta 8.983 euroko gastua eragin du (3.8. atala).

Patronatuak ez du ondare-kontabilitaterik egiten.

Aurreko oharren arabera, *honako hau gomendatzen dugu:*

⇒ *Aurrekontua gauzatzeko faseak errespetatzea eta erregistratzea.*

⇒ *Ondare-kontabilitatea egiten hastea, horri buruzko araudiak ezarritakoari jarraiki.*